# Eskuliburua, ehiztari izateko azterketa prestatzeko Nafarroan

# 2016

## GALDEREN KOADERNOA

**TITULUA**
Eskuliburua, ehiztari izateko azterketa
prestatzeko Nafarroan 2016
(2008ko edizioa eguneratuta)

**EDIZIOA**
Nafarroako Gobernua
Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta
Toki Administrazioko Departamentua

**EDUKIEN SORTZAILEAK**
Zuzendaritza: Mario Sáenz de Buruaga Tomillo[1]
Felipe Canales Basabe[1]
Miguel Ángel Campos Marcos[1]
Eduardo García-Tejedor Bidaurrazaga[1]
Alejandro Onrubia Baticón[1]
Juan Beltrán de Heredia Rentería[1]
José Ardaiz
(1) Consultora de Recursos Naturales, S.L.
Kexaako Gaztelua, 11, Bul.: 20 - 01007, Vitoria-Gasteiz
general@crnaturales.com

**IRUDIAK**
Conrado Tejado Lanseros

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA**
Heda Comunicación

**SUSTAPENA ETA BANAKETA**
http://www.cazaypesca.navarra.es

# AURKIBIDEA


5 ..... **1. EHIZARI BURUZKO LEGERIA ETA INGURUMENEKO ARAUDIA**
9 ..... **2. ERREGULAZIOA ETA EHIZAN ARITZEA**
KONTZEPTUA ETA EHIZARAKO LIZENTZIA
EHIZA ESPEZIEAK
EHIZA BARRUTIAK ETA EHIZA KONTROLATUKO EREMUAK
SEGURTASUN EREMUAK
EHIZA BARRUTIEN ETA EHIZA KONTROLATUKO EREMUEN SEINALIZAZIOA
EHIZA MODALITATEAK
KALTEEN ERANTZUKIZUNA
EHIZAKIAK GARRAIATZEA, SALEROSTEA ETA KONTSUMITZEA
ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK
32 ..... **3. EHIZA ANTOLATU ETA KUDEATZEKO OINARRIAK**
POPULAZIOEN PRINTZIPIOAK ETA FUNTZIONAMENDUA
ANTOLAMENDURAKO LANABESAK ETA EHIZA ANTOLATZEKO PLANAK
ZENTSUA EGITEKO METODOAK
ERABILERA ZEHATZETARAKO EREMUAK
ZAINTZA
44 ..... **4. EHIZATZEKO ESPEZIEAK**
ANTZARA
BASAHATEA
ZERTZETA ARRUNTA
KOPETAZURI ARRUNTA
HEGABERA
ISTINGOR ARRUNTA
OILAGORRA
EPER GORRIA
GALEPERRA
FAISAIA
PAGAUSOA
HAITZ-USOA
TXOLOMA
USAPAL ARRUNTA
USAPAL TURKIARRA
BIRIGARROAK
MIKA
BELE TXIKIA
BELABELTZA
ARABAZOZOAK
ERBIA
UNTXIA
AZERIA
BASURDEA
OREINA
ADARZABALA
ORKATZA
82 ..... **5. EKOSISTEMAK ETA BASAFAUNA**
93 ..... **6. ARMAK ETA EHIZA ZAKURRAK**
SU-ARMAK
EHIZAKO ARKUAK
EHIZA ZAKURRAK
106 ..... **7. ETIKA ETA SEGURTASUNA**
EHIZTARIAREN ETIKA
SEGURTASUNA EHIZAN
IDENTIFIKAZIO ARAZOAK
121 ..... **ERANTZUNEN ZERRENDA**

# 1
# Ehizari buruzko legeria eta ingurumeneko araudia

**1.** NAFARROAN EHIZAN ARITZEKO, GAUR EGUN ZEIN LEGERI BEGIRATU BEHAR ZAIO?

**a)** Bakar-bakarrik Nafarroako foru araudiari.
**b)** Bakar-bakarrik Estatuko araudiari.
**c)** Halako marko hierarkizatu bati, lehenengo nazioarteko araudiei eta azkenik Nafarroako foru araubideari.

**2.** NAZIOARTEKO HITZARMEN HAUETATIK, ZEIN DA GARRANTZITSUENA FLORA ETA FAUNAKO ESPEZIEEN KUDEAKETARI ETA APROBETXAMENDUARI DAGOKIONEZ?

**a)** Bernako hitzarmena eta Bonneko hitzarmena. Azken horren helburua da espezie migratzaileak mundu osoan kontserbatzea.
**b)** Pragako hitzarmena, bereziki, espezie migratzaileak mundu osoan kontserbatzeari buruzkoa.
**c)** Lisboako hitzarmena, natura eta, bereziki, ehiza kontserbatzeari buruzkoa.

**3.** HEGAZTIEI BURUZKO ZUZENTARAUAK ETA HABITATEI BURUZKO ZUZENTARAUA, ZEIN LURRALDETAN APLIKATZEN DIRA?

**a)** Europan.
**b)** Europar Batasunean.
**c)** Europar Batasunean eta Estatu Batuetan.

**4.** GURE HERRI INGURUAN HBB (ZEPA) BAT DEKLARATU DUTELA ENTZUTEN DUGUNEAN, ZER DA?

**a)** Halako eremu bat, naturaren eta turismoaren baloreak sustatzeko.
**b)** Halako eremu babestu bat, bertako habitatek balio handia dutelako.
**c)** Halako eremu babestu bat, hegaztiendako balio handia duelako.

**5.** NATURA 2000 SAREA ENTZUTEN DUGUNEAN, ZER DA?

**a)** Estatu bakoitzeko Parke Nazionalen Sarea.
**b)** Europako sare ekologiko bat, helburu nagusia duena Europar Batasuneko dibertsitate biologikoa edo biodibertsitatea kontserbatzea.
**c)** Sare mota bat, 2000. urtean sortu zena, pagausoak harrapatzeko.

**6.** ESTATUAK EHIZAREN INGURUKO ESKUMENAK AUTONOMIA ERKIDEGOEI TRANSFERITUTA DAUZKA:

**a)** Nafarroako Foru Komunitateak dituen eskumen osoak daude zehaztuak Naturguneak eta Basa Flora eta Fauna Zaintzeari buruzko 4/1989 Foru Legean.
**b)** Nafarroako Gobernuak baditu eskumen osoak gai honetan, baina ez dauka oraindik bere Ehizari buruzko Legea 23/2005 Aginduan jartzen duen bezala.
**c)** Gai honetan Nafarroako Foru Komunitateak badu bere legea, hain zuzen ere Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko 17/2005 Legea.

**7.** LAGUN BATEK ESAN DIGU GAUR EGUN D MOTAKO (ERRIFLEAK) ETA E MOTAKO (ESKOPETAK) ARMAK ERABILTZEKO LEHENBIZIKO ALDIZ ARMA LIZENTZIA ATERA BAINO LEHEN, ARMETARAKO AZTERKETA BAT GAINDITU BEHAR DELA NAHITAEZ:

**a)** Gezurra, aski da Ehiztarien Azterketa gainditzea.
**b)** Egia, nahitaezkoa da.
**c)** Egia, izan ere gauza bera dira armarako lizentzia eta ehizarako lizentzia.

**8.** NAFARROAN EHIZAN ARITZEKO, ZEIN DA PISU ETA GARRANTZI GEHIEN DUEN LEGEA?

**a)** 1993ko Foru Legea, Basa Fauna eta haren Habitatak babestu eta kudeatzeari buruzkoa.
**b)** 1996ko Foru Legea, Naturguneei buruzkoa.
**c)** 2005eko Foru Legea, ehizari eta arrantzari buruzkoa.

**9.** ZEIN IZAN ZEN NAFARROAKO ESPEZIE MEHATXATUEN KATALOGOA SORTU ZUEN LEGEA?

**a)** 1993ko Foru Legea, Basa Fauna eta haren Habitatak babestu eta kudeatzeari buruzkoa.
**b)** 1996ko Foru Legea, Naturguneei buruzkoa.
**c)** 1990eko Foru Legea, Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzkoa.

**10.** EHIZARAKO ITXITURA BAT EGIN NAHI DUGU GEURE EHIZA BARRUTIAN; EGIN DEZAKEGU HORRELAKORIK?

**a)** Bai, betiere erabiltzen badugu ganadurako sare koadroduna eta ez alanbre ziztaduna.
**b)** Bai, baina bakar-bakarrik ehiza larriko espezieetarako.
**c)** Ez, ehizarako itxiturak eta zerrakurak debekatuta daude bai Naturguneei buruzko Foru Legean bai Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legean.

**11.** NAFARROAKO EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO 17/2005 FORU LEGEA DELA-ETA, ONDOKO BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DAGO OKER EDO GAIZKI?

**a)** Ehiza eta arrantza baliabideen aprobetxamenduak Nafarroan izan duen izaera sozial nabaria errespetatzen du.
**b)** Toki entitateei debekatzen die ehizako baliabideak erabiltzea garapen ekonomikorako.
**c)** Kudeaketa partekatua onartzeko aukera ematen die toki entitateei, ehiza aprobetxamenduak erabiltzeko aukerak emanda.

**12.** ONDOKO BAIEZTAPEN HAUETATIK, ZEIN DA GEZURRA?

**a)** Nafarroako Naturgune Babestuetan ehizan aritzea erabat debekatuta dago.
**b)** Naturgune Babestu baten barrenean ehizan aritzea zilegi izatea edo ez izatea, gune horretako babesaren kategoriak esango du, eta, horrelakorik ez bada, bere barneko araudiak.
**c)** Ehizatzea da Naturgune Babestu gehienetan egiten diren jardueretako bat, betiere jarduera hori arautua badago Ehiza Antolatzeko Plan baten bitartez.

**13.** GUNE BABESTUEI BURUZ, NAFARROAKO EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO 17/2005 FORU LEGEAK HONAKO HAU EZARTZEN DU:

**a)** Gune babestu bat ezin da izan, inolaz ere, ehiza barruti baten zati.
**b)** Kudeaketa planean ehizan aritzea debekatuta egonda ere, gune babestua sar daiteke ehiza barruti batean eta barruti hartako ehiza erreserbari erantsiko zaio.
**c)** Gune bat babestua dagoela deklaratzen bada, horrek ekarriko du beti ehiza erreserba bat sortu beharra, betiere ukiturik suertatzen diren barruti haietan.

**14.** NATURGUNE BABESTUAK MUGATZEKO SEINALEEN KOLOREAK DIAGONAL BATEN BIDEZ DAUDE ZATITUAK, HONELAXE:

**a)** Goiko eskuineko zatia zuria eta behekoa berdea.
**b)** Goiko eskuineko zatia zuria eta behekoa beltza.
**c)** Ez da horrela, erabat zuriak dira.

**15.** EHIZAN ARI GARELA EZ GARA ADI EGON ETA BAT-BATEAN IKUSI DUGU SEINALE BAT KOLOREDUNA ETA DIAGONAL BATEK ZATITUTA, HONELAXE: GOIKO ESKUINALDEA ZURIA ETA BEHEKO EZKERRALDEA BERDEA. SEINALE HORREK ESAN NAHI DU:

**a)** Barrutiko erreserba.
**b)** Barrutiko eperren babeslekua.
**c)** Naturgune babestua.

# 2
# Erregulazioa eta ehizan aritzea

## KONTZEPTUA ETA EHIZARAKO LIZENTZIA

**16.** EHIZTARIEN BILERA BATEAN EZTABAIDA SORTU DA EA BEHARREZKOA OTE DEN ARMA GAINEAN ERAMATEA EHIZAN ARI ZARELA ESATEKO; BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DA EGIA?

**a)** Arma gainean eraman behar da nahitaez pertsona bat ehizan ari dela esan ahal izateko.
**b)** Ez da beharrezkoa, nahikoa da beste bati ehizakia harrapatzen laguntzea.
**c)** Ehizan ari dela esan daiteke bakar-bakarrik tiro egiten duenean.

**17.** GAUR EGUN, BARRUTIETATIK KANPO ARITZEN AHAL DA EHIZAN?

**a)** Ez, ehizan ari daiteke bakar-bakarrik propio mugatutako eremuetan edo ehiza kontrolatuko eremuetan.
**b)** Bai, baina bakar-bakarrik Ehiza Antolatzeko Plana onartua badute.
**c)** Bai, edozein tokitan ehizatu daiteke, barrutia izan edo ez.

**18.** LAGUN BATEK AIPATU DU NAFARROAKO BARRUTI BATEAN EHIZAN ARITZEKO BEHARREZKOA DELA BARRUTIKO APROBETXAMENDUAREN TITULARRAREN IDATZIZKO BAIMENA GAINEAN ERAMATEA.

**a)** Egia.
**b)** Gezurra, Ehizarako Lizentzia nahikoa da.
**c)** Barrutiaren arabera eta hango Ehiza Antolatzeko Planaren arabera izaten da.

**19.** EHIZAN ARITU AHAL IZATEKO, BEHARREZKOA DA EHIZARAKO LIZENTZIA BEHAR BEZALA EGUNERATUA EDUKITZEA?

**a)** Ez beti, barrutiko txartelarekin nahikoa da.
**b)** Bai, betiere.
**c)** Bai, baina behin aterata nahikoa da, ez da berritu behar.

**20.** EHIZAN ARITU AHAL IZATEKO, ALDIAN-ALDIAN BERRITU BEHAR DA NAFARROAKO EHIZA LIZENTZIA?

**a)** Bai, eta urtero ordaindu beharra dago tasa bat.
**b)** Ez, behin ateraz gero bizi guztirako balioko digu.
**c)** Bi aldiz bederen berritu behar da bizian, eta betiere behar den tasa ordainduta.

**21.** EHIZARAKO LIZENTZIA ESKURATZEKO ZEIN DA GUTXIENEKO ADINA?

**a)** 12 urte, baina adin horrekin ez daiteke erriflerik erabili.
**b)** 14 urte, baina betiere legez adingabearen ordezkariak emandako idatzizko baimenarekin.
**c)** 18 urte.

**22.** EHIZTARI BATEK BERE LEHENBIZIKO EHIZARAKO LIZENTZIA ATERA NAHI BADU, ALDEZ AURRETIK EHIZTARIAREN AZTERKETA GAINDITU BEHAR DU.

**a)** Egia.
**b)** Egia, eta 10 urtetik behin berritu behar da.
**c)** Bai eta ez, bakar-bakarrik 18 urtetik beherakoentzat da beharrezkoa.

**23.** NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN BIZI EZ DIREN EHIZTARIEK IZAN DEZAKETE BAIMEN BEREZI BAT, ALDI BATERAKO EHIZATZEKO, BAINA BETIERE BALDIN BADUTE EUREN BIZITOKIKO EHIZA LIZENTZIA, INDARREAN DAGOENA; DENA DEN, BAIMEN HORREN DENBORA DA:

**a)** Bederatzi asteburutarako sasoi bakoitzean.
**b)** Bi egun baliodunetarako, baina gehienez ere atera daiteke bederatzi egunetarako urtean.
**c)** Ondoz ondoko bederatzi egun naturaletarako, baina gehienez ere horrelako bi baimen atera daitezke ehiztari bakoitzeko eta sasoi hartarako.

## EHIZA ESPEZIEAK

**24.** NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO EHIZA ESPEZIEEN ZERRENDARI DAGOKIONEZ, DEN-DENAK EHIZATU DAITEZKE URTERO?

**a)** Bai, urtero ehizatu daitezke espezie berberak.
**b)** Bai, izan ere Ehiza Debekualdiei buruzko Xedapenak urtero seinalatzen ditu ehizatu daitezkeen espezie berberak.
**c)** Ez, Ehiza Debekualdiei buruzko Xedapenak urtero seinalatzen ditu zerrenda horretako zein espezie, subespezie edo populazio ehizatu daitezkeen.

**25.** DEKLARATU OTE DAITEKE ESPEZIE MEHATXATUEN KATALOGOAN SARTUTA DAGOEN ESPEZIE BAT EHIZARAKO DELA EDO EHIZATU DAITEKEELA?

**a)** Ez, inolaz ere.
**b)** Bai, baina Ehiza Antolatzeko Planean egiaztatzen bada aprobetxamenduaren bideragarritasuna.
**c)** Bai eta ez, espezie horrek espezie mehatxatuen artean duen kategoriaren arabera izaten da; dena den, basa faunako espezie guztiak ehizatu edo arrantzatu daitezke.

**26.** AZERIA SAILKATU NAHI BAGENU, ZEIN KATEGORIATAN SARTUKO GENUKE?

**a)** Arra eta heldua baldin bada, ehiza larriko espezieen artean, eta emea edo gaztea bada, ehiza xeheko espezieen artean.
**b)** Ehiza xeheko espezieen artean.
**c)** Ehiza larriko espezieen artean.

**27.** BARRUTI BATEAN EHIZATZEKO DAUDEN EHIZAKIEI BURUZKO ELKARRIZKETA BATEAN, ESAN DUTE BADIRELA EHIZA XEHEKO ETA EHIZA LARRIKO ESPEZIEAK, ZER ESAN NAHI DU?

**a)** Badirela espezie batzuk bakarrik ehiztari helduek ehiza ditzaketenak, eta beste batzuk egokiagoak direnak ehiztari hasiberriendako edo adingabeendako.
**b)** Badirela tamaina txikiko espezieez gainera (ehizarako hegaztiak, lagomorfoak, azeriak...), azeria baino tamaina handiagoko beste ugaztun batzuk (orkatza, basurdeak...).
**c)** Ezin direla barruti batean nahasian bizi ehiza txikiko espezieak eta ehiza larrikoak.

**28.** EHIZA DEBEKUALDIEI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK URTERO ARAUTZEN DU EHIZA, ETA INDARRA HARTZEN DU ARGITARATZEN DENEAN:

**a)** Estatuko Aldizkari Ofizialean.
**b)** Nafarroako Aldizkari Ofizialean.
**c)** Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak banatzen dituen zabalkundeko liburuxketan.

**29.** EHIZTARI BATENDAKO EZINBESTEKOA DA SASOI BAKOITZEKO EHIZA DEBEKUALDIEI BURUZKO XEDAPEN OROKORRA EZAGUTU ETA ADI-ADI IRAKURTZEA.

**a)** Bai, salbu eta ehiztariak aldez aurretik Ehiztariaren Azterketa gainditua badu.
**b)** Ez, sasoi batean egitearekin aski da, izan ere ematen dituen arauak beti berberak izaten dira.
**c)** Jakina, eta sasoi hartarako bakarrik balio du.

**30.** SASOI BAKOITZEAN EHIZATU DAITEZKEEN ESPEZIEEN ZERRENDA EMATEN DA ARGITARA:

**a)** Ehiza Debekualdiei buruzko Xedapen Orokorrean.
**b)** Estatuko Ehizari buruzko Legean.
**c)** Nafarroako Espezie Mehatxatuen Katalogoan.

**31.** SASOI HONETARAKO, NAFARROAN ZEIN EGUNETAN ETA DENBORALDITAN EHIZATU DAITEKEEN JAKITEKO, IRAKURRI BEHARKO DUGU:

**a)** Ehiza Debekualdiei buruzko Xedapen Orokorra.
**b)** Estatuko Ehizari buruzko Legea.
**c)** Basa Fauna eta haren Habitatak Babestu eta Kudeatzeari buruzko Foru Legea.

**32.** BARRUTI BATEKO APROBETXAMENDUAREN TITULARRA DA BERTAN DIREN EHIZAKIEN JABEA.

**a)** Gezurra, ehizaki baten jabea da hura harrapatzen duen ehiztaria.
**b)** Egia.
**c)** Egia, baina ehiztariak harrapatzen duenean beretzat da.

**33.** EHIZA XEHEAN, ZEIN EHIZTARI JOTZEN DA NORMALEAN HARRAPATUTAKO EHIZAKIAREN JABE?

**a)** Tiroa lehenbizi bota duena.
**b)** Ehizakia hil duena.
**c)** Odola lehenbizi eragin diona (lehenbizikoz zauritu duena).

**34.** EHIZA LARRIAN, ZEIN EHIZTARI JOTZEN DA NORMALEAN HARRAPATUTAKO EHIZAKIAREN JABE?

**a)** Tiroa lehenbizi bota duena.
**b)** Ehizakia hil duena.
**c)** Odola lehenbizi eragin diona (lehenbizikoz zauritu duena).

**35.** EPER GORRI BATI EGIN DIOGU TIRO, BAINA ZAURITUTA ERE BARRUTIKO MUGATIK BESTALDERA PASATU DA.

**a)** Eskubidea badugu oraindik ehizakia jasotzeko.
**b)** Ez dugu jasoko, izan ere eper zauritua barrutitik kanpora pasatzen denean galtzen dugu hura jasotzeko eskubidea.
**c)** Ez ihes egiteko, eskopeta prest dugula berreskuratu dugu.

**36.** EHIZAKI BAT ZAURITURIK SARTZEN BADA ALDAMENEKO BESTE BARRUTI BATERA ETA EHIZAKI HORI MUGATIK BERTATIK BISTAN BALDIN BADA, EHIZTARIA SARTUKO DA BETI:

**a)** Armarik gabe, hura utzita geure barrutian, sastraka baten ondoan, zutik.
**b)** Arma irekita edo kargatu gabe, eta zakurra ongi loturik.
**c)** Arma zorroaren barruan, eta zakurra askatu daiteke animalia bilatu dezan.

## EHIZA BARRUTIAK ETA EHIZA KONTROLATUKO EREMUAK

**37.** NAFARROAKO EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO 17/2005 FORU LEGEAK ZEIN BARRUTI MOTA BEREIZTEN DITU?

**a)** Bi mota: publikoak eta pribatuak.
**b)** Hiru mota: tokiko ehiza barrutiak, Nafarroako Gobernuarenak eta barruti pribatuak.
**c)** Hiru mota: tokikoak, Nafarroako Gobernuarenak eta ehiza kontrolatuko eremuak.

**38.** NAFARROAKO EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO 17/2005 FORU LEGEAREN ARABERA, TOKIKO EHIZA BARRUTI BATEAN:

**a)** Ehiza aprobetxamendu guztietarako titular bakarra behar du izan.
**b)** Aprobetxamendu bat baino gehiago izan daitezke eta haietako bakoitzak izan behar du bere titularra.
**c)** Ehizarako aprobetxamendu bakarra onartu daiteke eta, beraz, titularra ere bakarra izanen da.

**39.** EHIZA BARRUTIETAKO AZALERARI BURUZ, NAFARROAKO EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO 17/2005 FORU LEGEAK EZARTZEN DU, ORO HAR, HONENBESTEKOA IZANEN DELA:

**a)** Gutxienez 500 ha.
**b)** Gutxienez 1.000 ha.
**c)** Gutxienez 2.000 ha.

**40.** NAFARROAKO EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO 17/2005 FORU LEGEAREN ARABERA, TOKIKO EHIZA BARRUTIETAKO APROBETXAMENDUAK ESLEITU DAITEZKE:

**a)** Bi modutan: zuzenean eta enkante bidez.
**b)** Bi modutan: enkante bidez edo lehiaketa publikoa eginda. Debekatuta dago zuzenean esleitzea.
**c)** Hiru modutan: zuzenean tokiko ehiztarien elkarteari (elkartea legez eratuta badago), Toki Entitateak zuzenean kudeatuta, edo enkante bidez nahiz lehiaketa publikoa eginda.

**41.** TOKIKO EHIZA BARRUTI BATEAN, ONARTU BEHAR DIRA BARRUTIRIK EZ DUTEN EHIZTARI NAFARRAK?

**a)** Ez, salbu elkarteak dirua behar badu.
**b)** Bai, tokiko elkarteko ehiztarien kopuruaren %3 gutxienez, salbu eta tokiko elkarteko ehiztarien kopurua handiagoa bada Ehiza Antolatzeko Planean ezarritako gehienekoa baino.
**c)** Bai. Ehiztarien kopuruak, guztira, Ehiza Antolatzeko Planean ezarritako gehienekoa gainditzen duen arte.

**42**. EHIZA BARRUTI PRIBATUA ESATEN DUGUNEAN, BARRUTI HORI DA:

**a)** Partikularrek sustatutakoa.
**b)** Lur partikularretan sustatutakoa.
**c)** Irabaki asmoarekin sustatutakoa.

**43.** NAFARROAKO EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO 17/2005 FORU LEGEAREN ARABERA, NAFARROAKO GOBERNUKO INGURUMEN, LURRALDEAREN ANTOLAMENDU ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUAK KUDEATZEN AHAL DITU:

**a)** Eremu mota bakarra: Nafarroako Gobernuaren ehiza barrutiak.
**b)** Bi eremu mota: Nafarroako Gobernuaren ehiza barrutiak eta ehiza kontrolatuko eremuak.
**c)** Hiru eremu mota: Nafarroako Gobernuaren ehiza barrutiak, tokiko ehiza barrutiak eta ehiza kontrolatuko eremuak.

**44.** "EHIZA KONTROLATUKO EREMUAK" NAFARROAKO EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO 17/2005 FORU LEGEAN AIPATZEN DIRA, ETA HORIEK SORTZEN DIRA EDOZEIN ARRAZOIRENGATIK EHIZA BARRUTIETATIK KANPO GELDITU DIREN EREMU JARRAITUETAN; ZERGATIK SORTZEN DIRA?

**a)** Erreserba eremuak uzteko ehiza barrutitik kanpo. Itxiturazko eremuak dira, eta bertan debeku da ehizan aritzea.
**b)** Ehiza aprobetxamenduei eustea komeni delako, biodibertsitatea edo nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako ustiategiak arriskuetatik babestu beharrez.
**c)** Ehizakiak kontrolatuak izateko, “krotalen” bidez edo markatzeko beste sistema baten bidez.

**45.** SALBUESPENAK SALBUESPEN, TOKIKO EHIZA BARRUTI BAT SORTU NAHI BADUGU, ZENBATEKO AZALERA JARRAITU BEHAR DUGU, GUTXIENEZ?

**a)** 500 hektarea.
**b)** 1.000 hektarea.
**c)** 2.000 hektarea.

**46.** BARRUTIKO SEINALEAK NORK JARRI BEHAR DITU?

**a)** Barrutiko kudeaketaren titularrak.
**b)** Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak.
**c)** Beti ez da beharrezkoa izaten barrutian seinaleak paratzea.

## SEGURTASUN EREMUAK

**47.** SEGURTASUN EREMUEN BARRENEAN DEBEKU DA EHIZAN ARITZEA ARMAK ERABILITA, ETA HORIEK ERAMATEN AHAL DIRA ZORROTIK KANPO, BAINA BETI EGON BEHAR DUTE KARGATURIK ETA ERABILTZEKO PREST.

**a)** Egia, baina bakarrik tiratzen ahal dugu segurtasun eremutik ateratzen garenean.
**b)** Gezurra, erabat debekatuta dago arma kargatu gabe eramatea.
**c)** Gezurra, zorrotik aterata eramaten ahal badira ere, beti izanen dira kargatu gabe.

**48.** EHIZA LARRIKO UXALDI POSTUETAN EDO USO ETA BIRIGARROETARAKO POSTUETAN IZAN EZIK, ALTXONBIDEAK, ABELBIDEAK ETA BIDE PUBLIKOAK BALDIN BADIRA, SEGURTASUN EREMUAREN MUGA JARTZEN DA HONELAKO DISTANTZIARA:

**a)** 3 metro, kanpoko ertzetik neurtuak.
**b)** 5 metro, kanpoko ertzetik neurtuak.
**c)** 8 metro, kanpoko ertzetik neurtuak.

**49.** ERREPIDEAK BADAUDE, ZEIN DISTANTZIATARA JARTZEN DA SEGURTASUN EREMUA:

**a)** 3 metro, zelaiguneko kanpoko ertzetatik neurtuak.
**b)** 8 metro, zelaiguneko kanpoko ertzetatik neurtuak.
**c)** 25 metro, zelaiguneko kanpoko ertzetatik neurtuak.

**50.** AUTOBIDE ETA AUTOBIAK BADIRA, ZEIN DISTANTZIATARA JARTZEN DA SEGURTASUN EREMUA:

**a)** 25 metro, zelaiguneko kanpoko ertzetatik neurtuak.
**b)** 50 metro, zelaiguneko kanpoko ertzetatik neurtuak.
**c)** 100 metro, zelaiguneko kanpoko ertzetatik neurtuak.

**51.** TRENBIDEAK BADIRA, SEGURTASUN EREMUA HONELAKO DISTANTZIARA JARTZEN DA:

**a)** 25 metro, kanpoko erreietatik neurtuak.
**b)** 50 metro, kanpoko erreietatik neurtuak.
**c)** 100 metro, kanpoko erreietatik neurtuak.

**52.** IBAIAK, IBAIBIDEAK ETA IBAIERTZAK BADIRA, SEGURTASUN EREMUA HALAKO DISTANTZIARA JARTZEN DA:

**a)** 5 metro, urertzetatik neurtuta.
**b)** 10 metro, urertzetatik neurtuta.
**c)** 25 metro, urertzetatik neurtuta.

**53.** HIRIGUNEAK ETA HERRIGUNEAK EDO BIZITZEKO EREMUAK BADIRA, SEGURTASUN EREMUA ZEHAZTUKO DA AZKEN ERAIKIN EDO INSTALAZIO BIZIGARRIA OINARRITZAT HARTUTA ETA EMAITZAKO EREMUA ZABALDUKO DA NORABIDE GUZTIETAN (ERAIKINEAN NORMALEAN INOR BIZI EZ DENEAN IZAN EZIK) HONENBESTE METRO:

**a)** 100 metro.
**b)** 200 metro.
**c)** 500 metro.

## EHIZA BARRUTIEN ETA EHIZA KONTROLATUKO EREMUEN SEINALIZAZIOA

**54.** LEHEN MAILAKO SEINALEAK NAHITAEZ JARRI BEHAR DIRA BARRUTIRA SARTZEN DIREN BIDE GUZTIETAN, ETA HORREZ GAINERA BARRUTIAREN BARRUAN SEINALE HORIEK JARRI BEHAR DIRA GEHIENEZ ERE HONELAKO TARTEA UTZITA:

**a)** 100 metro.
**b)** 300 metro.
**c)** 600 metro.

**55.** LEHEN MAILAKO SEINALEEN ARTEAN BIGARREN MAILAKOAK ERE JARRI BEHAR DIRA, ETA EUREN ARTEKO GEHIENEKO DISTANTZIAK BEHAR DU IZAN:

**a)** 100 metro.
**b)** 200 metro.
**c)** 300 metro.

**56.** BARRUTIKO MUGETATIK HURBIL BAT-BATEAN SEINALE BAT IKUSI DUGU, GUTXI GORABEHERA 33 X 50 ZENTIMETROKOA, ETA BERTAN IRAKUR DAITEKE KOADRO ZURIAREN GAINEAN LETRA BELTZEZ IDATZITA: “TOKIKO EHIZA BARRUTIA”. HORRETAZ GAIN, METALEZKO XAFLA BAT BADU BARRUTIAREN MATRIKULA ERAKUSTEN DUENA. SEINALE HORI DA:

**a)** Lehen mailakoa.
**b)** Bigarren mailakoa.
**c)** Hirugarren mailakoa.

**57.** HALAKO SEINALEA BALDIN BADA DIAGONALA DUENA ETA GOIKO ESKUINALDEAN ZURIA ETA BEHEALDEKO EZKERREAN BELTZA, ETA NEURRIA GUTXI GORABEHERA 20 X 30 ZENTIMETROKOA, ZEIN SEINALE MOTA DA?

**a)** Lehen mailakoa.
**b)** Bigarren mailakoa.
**c)** Hirugarren mailakoa.

## EHIZA MODALITATEAK

**58.** ARBOLADI BAT IXTEN BADUGU, EHIZA POSTU FINKOAK JARRITA ETA ZAKURRAK ERABILTZEN BADITUGU BARRENEKO PIEZAK MUGIARAZTEKO ETA UXATZEKO, ZEIN EHIZA MOTA DA EGITEN ARI GARENA?:

**a)** Bakar-ehiza larrian ("rececho").
**b)** Uxaldia.
**c)** Ibilizko talde-ehiza ("mano").

**59.** NAFARROAKO EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO 17/2005 FORU LEGEAREN ARABERA, EHIZA LARRIKO BASURDE UXALDI OHIKOETAN, PARTE HARTZAILE IZAN DAITEZKE:

**a)** Postuetan 4 eta 40 ehiztari bitarte, eta guztira 50 ehiztari baino gehiago ez, eta gehienez ere 30 zakur.
**b)** Gutxienez 30 ehiztari, gehienez ere 30 zakurrek lagunduta.
**c)** Postuetan gehienez ere 25 ehiztari, 25 baino zakur gehiagok lagunduta.

**60.** OSO GOIZ EDOTA ILUNABARREAN, OINEZ ABIATU GARA MENDIRA GIDARI BATEN LAGUNTZAREKIN TROFEO EDERREKO ORKATZ BAT BEREIZTEKO; AHALIK ETA GEHIEN HURBILDU ONDOREN, TIRO EGITEN SAIATUKO GARA. EHIZA MOTA HORRI ESATEN ZAIO:

**a)** Bakar-ehiza larria ("rececho").
**b)** Ibilizko bakar-ehiza ("salto").
**c)** Ibilizko talde-ehiza ("mano").

**61.** BASURDEEK ERAGINDAKO KALTEAK DIRELA-ETA, BAIMENA EMAN DIGUTE EGUN BATEZ EHIZAN ARITZEKO POSTU FINKO BATETIK, KALTETUA DAGOEN FINKAN BERTAN JARRIA EDO BASURDEAREN BAINUTOKIAN. EHIZA MOTA HORRI ESATEN ZAIO:

**a)** Zelata.
**b)** Bakar-ehiza larria ("rececho").
**c)** Ibilizko bakar-ehiza ("salto").

**62.** NAFARROAKO EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO 17/2005 FORU LEGEAREN ARABERA, BASURDEAREN GAUEKO ZELATAN ARITZEA DA:

**a)** Ehiza mota bat, baimenduta dagoena.
**b)** Ehiza mota bat, erabat debekatua dagoena.
**c)** Ehiza mota bat, bakar-bakarrik kalteak izan direnean baimentzen dena.

**63.** BASURDEA GAUEKO ZELATAN HARRAPATU NAHI BADUGU, SEGURTASUNA BERMATZEKO HONELAXE EHIZATU BEHAR DA:

**a)** Lurretik.
**b)** Lurzorua baino gorago dauden ehiza-postu finkoetatik.
**c)** Beti zuhaitz baten adarretatik.

**64.** EHIZTARI BAT BAKARRIK BERE ZAKURRAREKIN BALDIN BADOA BARRUTI BATEAN BARNA EHIZA XEHEKO HAINBAT ESPEZIERENDAKO GOGOKOENAK DIREN LEKUETATIK, NOLA DEITZEN DA EGITEN ARI DEN EHIZA MOTA?:

**a)** Arrasto ehiza.
**b)** Ibilizko bakar-ehiza ("salto").
**c)** Ibilizko talde-ehiza ("mano").

**65.** HIRU EHIZTARI LERRO BAT EGINEZ ETA ZAKURREK LAGUNDUTA AURRERA BALDIN BADOAZ, ETA HORRELA LUR EREMU HANDIAGOA KONTROLATUZ ETA EHIZA TXIKIKO EHIZAKIEN IHESBIDEA MURRIZTUZ, NOLA DEITZEN DA EGITEN ARI DIREN EHIZA MOTA?:

**a)** Ibilizko bakar-ehiza ("salto").
**b)** Ibilizko talde-ehiza ("mano").
**c)** Uxaldia.

**66.** EHIZATU NAHI DUGUN ESPEZIEAREN USADIOAK EZAGUTZEN BALDIN BADITUGU, ETA HALAKO PUNTU BEREZIETAN HAREN ESPEROAN GELDITZEN BAGARA, NOLA DEITZEN DA EHIZA MOTA HORI?:

**a)** Ibilizko bakar-ehiza ("salto").
**b)** Ibilizko talde-ehiza ("mano").
**c)** Postu finkoko ehiza.

**67.** USO EHIZAN ETXOLA BATEAN GAUDENEAN ETA HEGAZTIAK ZINBELAK ERABILIZ ERAKARTZEN BADITUGU, NOIZ JAKITEN DUGU ZEIN DEN TIRO EGITEKO MOMENTUA?:

**a)** Uso taldea hegan pasatzen denean etxolatik gehienez ere 40 metrora.
**b)** Usoetakoren bat hegan pasatzen denean etxolatik gehienez ere 30 metrora.
**c)** Etxolaren inguruko adarretan pausatzen direnean.

**68.** BADA EHIZA MOTA BAT ZEINETAN ZAKURRAREN ETA EHIZTARIAREN OHIKO EGINBEHARRAK TRUKATZEN DIREN, ALEGIA, EHIZTARIAREN LANA DA EHIZAKIA ALTXATZEA ETA ZAKURRA DA EHIZAKIA HARRAPATZEN DUENA. ZER EHIZA MOTA DA?:

**a)** Erbi-ehiza, galgoak erabilita.
**b)** Erbi-ehiza, arrastoko zakurrak erabilita.
**c)** Ehiza postu finkoetatik egindako ehiza.

**69.** ANIMALIAK HARRAPATZEKO EDO HILTZEKO, BALIABIDE MASIBOAK EDO EZ-SELEKTIBOAK ERABILTZEA DELA ETA, GAUR EGUN DEBEKATUTA DAUDE ORO HAR:

**a)** Haiek edukitzea eta erabiltzea.
**b)** Haiek salerostea.
**c)** Haiek erabili, eduki eta salerostea.

**70.** NAFARROAN, EPERRA ERREKLAMO BIDEZ HARRAPATZEA DEBEKATURIK DAGO.

**a)** Egia.
**b)** Gezurra, ehiza mota hori bakarrik hegoaldean dago debekaturik.
**c)** Gezurra, ehiza mota hori bakarrik iparraldean dago debekaturik.

**71.** FOKOAK EDO BESTELAKO ARGI MOTA ERABILIZ EHIZAN ARITZEA DEBEKAKUTA DAGO ORO HAR.

**a)** Gezurra, baimen berezi bat aski da Naturgune Babestuetan ehizatu ahal izateko.
**b)** Egia.
**c)** Ehiza Antolatzeko Plan bakoitzaren arabera.

**72.** ZEIN BALDINTZATAN DA ZILEGI EHIZARAKO BEITAK (ZEBOAK) ERABILTZEA?

**a)** Inolaz ere ez; erabat debekatuta dago.
**b)** Ehiza larrian bakarrik.
**c)** Ehiza xehean bakarrik.

**73.** NAFARROAKO EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO 17/2005 FORU LEGEAREN ARABERA, ARKU BIDEZKO EHIZA DA:

**a)** Ehiza mota bat, baimenduta dagoena.
**b)** Ehiza mota bat, erabat debekatua dagoena.
**c)** Ehiza mota bat, bakar-bakarrik kalteak izan direnean baimentzen dena.

**74.** ARKU BIDEZKO EHIZAREN EZAUGARRIA DA:

**a)** Harrapatu behar duzun ehizakiarengandik 30 metrora hurbildu behar duzula, gutxienez.
**b)** Ehiza xeheko ehizakiak aise harrapatzen ahal direla.
**c)** Aise aritzen ahal zarela argi gutxi dagoenean.

**75.** NAFARROAKO EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO 17/2005 FORU LEGEAREN ARABERA, EHIZA-HEGAZTI HARRAPARIEKIN EHIZATZEA DA:

**a)** Ehiza mota bat, baimenduta dagoena.
**b)** Ehiza mota bat, erabat debekatua dagoena.
**c)** Ehiza mota bat, bakar-bakarrik kalteak izan direnean baimentzen dena.

## KALTEEN ERANTZUKIZUNA

**76.** ARMAK ERABILTZEN DITUZTEN EHIZTARI GUZTIEK NORBANAKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURU KONTRATUA EGIN BEHARKO DUTE, EHIZAN ARI DIRENEAN ONDASUNEI, JENDEARI, INGURUMENARI ETA BASA FAUNARI ERAGITEN AHAL DIZKIETEN KALTEEN ORDAINA EMATEKO BETEBEHARRA ESTALIKO DUENA.

**a)** Egia.
**b)** Gezurra, barrutiko aprobetxamenduaren titularra da erantzule bakarra ehizan aritzearen ondorioz sortzen ahal diren kalte eta galerena.
**c)** Gezurra, Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua da erantzule bakarra ehizan aritzearen ondorioz sortzen ahal diren kalte eta galerena.

**77.** EHIZA BARRUTI BATEN BARRENEAN ARI DELA, EHIZTARI BATEK EHIZATZEKO BASA FAUNARI KALTEA ERAGITEN BADIO, NOREN AURREAN ERANTZUN BEHAR DU?

**a)** Barrutiko aprobetxamenduaren titularraren aurrean.
**b)** Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aurrean.
**c)** Udalaren aurrean.

**78.** EHIZA BARRUTI BATEN BARRENEAN ARI DELA, EHIZTARI BATEK EHIZATZEKO EZ DEN BASA FAUNARI KALTEA ERAGITEN BADIO, NOREN AURREAN ERANTZUN BEHAR DU?

**a)** Barrutiko aprobetxamenduaren titularraren aurrean.
**b)** Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aurrean.
**c)** Udalaren aurrean.

**79.** EHIZA BARRUTI BATEN BARRENEAN, EHIZATZEKO BASA FAUNAK ERAGINDAKO KALTEEN ERANTZUKIZUNA NORENA DA?

**a)** Barrutiko aprobetxamenduaren titularrarena.
**b)** Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuarena.
**c)** Udalarena.

**80.** Kendu

**81.** BASURDE EHIZAN ARI GARELA NAFARROAKO MENDI BATEAN, BASURDEETAKO BATEK, ZAKURREK INGURATURIK DUTELA, ONDOKO ERREPIDE BATERA IHESEAN ATERA ETA TRAFIKO ISTRIPUA ERAGIN DU. NAFARROAKO EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO 17/2005 FORU LEGEAREN ARABERA, NOR DA KALTE HORREN ERANTZULE?

**a)** Auto gidaria, zirkulazio arauak errespetatu baditu ere.
**b)** Aprobetxamenduaren titularra, istripua izan delako ehiza jardueraren ondorio zuzena.
**c)** Nafarroako Gobernua, beti izaten delako basa faunak eragindako istripu guztien erantzule.

**82.** Kendu

**83.** EHIZA BARRUTI BATEAN, HARTZ ARRE BAT SARTU DA ETA ARTALDE BATI KALTEAK ERAGIN DIZKIO, BI ARDI HILDA SUERTATU DIRELA, NOR DA ERANTZULEA?

**a)** Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua, beti izaten delako hartz arreak Nafarroan sortzen dituen kalte guztien erantzule.
**b)** Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua erantzule da bakarrik hartz arreak Nafarroan sortzen dituen trafiko istripuetan.
**c)** Ehiza larriko espeziea denez, barrutiko aprobetxamenduaren titularra da erantzule.

**84.** ARABAZOZOEN SALDO BATEK LOTOKIA AUKERATU DU NAFARROAKO HEGOALDEKO BARRUTI BATEKO MAKALDI BATEAN, HAIEN KONTROLA BAIMENDUA IZAN ONDOREN, BAINA KALTE HANDIAK ERAGIN DITUZTE OLIBONDOEN EREMU BATEAN, NOR DA KALTE HORREN ERANTZULE?

**a)** Barrutiko aprobetxamenduaren titularra, behar adina arabazozo ez harrapatzeagatik.
**b)** Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua.
**c)** Inor ez da erantzule, izan ere izurritetzat deklaratutako espezieek eragindako kalteak ez dira ordaindu behar.

## EHIZAKIAK GARRAIATZEA, SALEROSTEA ETA KONTSUMITZEA

**85.** EKAINEAN GAUDE NAFARROAKO ERREPIDEAN BARNA BIDAIATZEN; BAT-BATEAN, BIDE-BAZTERREAN ERBI BAT IKUSI DUGU, KOLPATU BERRIA ETA, ITXURAZ, OSORIK.

**a)** Ateratzen ahal gara autotik eta besterik gabe maleta-lekuan sartu, baina betiere guk geronek jateko, ehiza debekualdian gaudelako.
**b)** Debeku garaian ez da zilegi ehizaki hilak garraiatzea, salbuespen batzuk kenduta, baina horretarako baimen bereziak behar dira.
**c)** Jasotzen ahal dugu eta autora sartu eta eraman, eta gainera saltzea ere zilegi dugu, jatetxeren bati edo.

**86.** USO EHIZAKO EGUN BATEAN, EHIZTARI BATEK BI BOTA DITU ETA, ETXERA ITZULI BAINO LEHEN, BURURATU ZAIO USOAK BERTAN LUMATZEA ETA GARBITZEA; EGIN DEZAKE HORRELAKORIK?

**a)** Bai, betiere burua eta hankak gorputzari atxikiak uzten baditu.
**b)** Ez, ehizakiak kanpoan lumatzea edo larrutzea debekatua dago.
**c)** Bai, baina burua eta hankak moztu egin behar zaizkio.

**87.** USOETARAKO POSTU BATEAN EHIZAN ARI GARELA, 5 ALE HARRAPATU DITUGU. ANIMALIAK GARRAIATZEKO, BEHARREZKOA DA:

**a)** Ehiztari elkarteko lehendakariaren baimen bat izatea, bertan adierazita aleen kopurua.
**b)** Animaliak lumaturik eramatea, erraiak kenduta, eta buru-hankarik gabe.
**c)** Hegaztiak euren lumak eta guzti eramatea edo, bestela, burua eta hankak oso-osorik.

**88.** ORKATZ EMEA AURKITU DUGU ERREPIDEAN AUTO BATEK HARRAPATUTA; BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DA EGIA?

**a)** Ezin dugu geure autoan eraman, bakarrik garraiatzen ahal direlako edo zigilua (prezintoa) dutenak, barruti nafar batekoak direnean, edo osasun gidarekin, Nafarroakoa ez den barruti batekoak direnean.
**b)** Geure autoan eramaten ahal dugu, nahiz eta guk harrapatua ez izan; izan ere, zigilua izaten da nahitaezkoa bakar-bakarrik tiroz zauritutako orkatzak direnean.
**c)** Geure autoan eramaten ahal dugu, zeren eta, nahiz eta guk ez dugun harrapatu, zigilua izaten baita nahitatezkoa bakarrik trofeoa duten arrak direnean.

**89.** ADARRAK BEHAR BEZALAKO TAMAINAKOAK EZ DIRENEAN, ORKATZEI ETA OREINEI NON JARTZEN ZAIE ZIGILUA (PREZINTOA)?

**a)** Belarri baten azpialdeko kartilagoa alderik alde pasatuta.
**b)** Animaliaren lepoaren bueltan.
**c)** Atzeko belaun-txokoaren eta hankaren artean pasatuta.

**90.** TIROZ BOTATAKO ORKATZ EDO OREIN ARRAK DIRENEAN, NON JARTZEN ZAIE ZIGILUA (PREZINTOA)?

**a)** Belarri baten azpialdeko kartilagoa alderik alde pasatuta.
**b)** Beti atzeko belaun-txokoaren eta hankaren artean pasatuta.
**c)** Trofeoak halako tamaina nahikoa badu, errosetaren gain-gainean jartzen da beti.

**91.** ORKATZ EDO OREINEN HAINBAT PUSKA GARRAIATZEKO, BEHARREZKOA DA HAIEK ZIGILUAREKIN (PREZINTOAREKIN) ERAMATEA?

**a)** Ez.
**b)** Bakar-bakarrik trofeoak aparte garraiatzen direnean, hain zuzen ere zigiluak nahitaezkoak direlako soil-soilik espezie horietako arrak badira.
**c)** Bai, batez ere trofeoekin.

**92.** GURE EHIZA BARRUTIKO EHIZA ANTOLATZEKO PLANETAN EZARRI ZEN 7 ORKATZ AR ETA 5 EME EHIZATZEKO AUKERA, ETA HORRETARAKO 12 ZIGILU (PREZINTO) EMAN ZIREN. HALA ERE, SASOIAREN BUKAERAN BAKAR-BAKARRIK 5 AR ETA 5 EME EHIZATU ZIREN; ZER EGIN BEHAR DA SOBRATU DIREN 2 ZIGILU HORIEKIN?

**a)** Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari itzuliko dizkiogu.
**b)** Guretako gordeko ditugu eta horrela hurrengo ehiza sasoian 9 ar eta 5 eme ehizatuko ditugu.
**c)** Bota eginen ditugu; izan ere, zigiluek ehiza sasoi baterako bakarrik balio izaten dute.

**93.** EHIZAKI BATEN HARAGIA JANGARRIA DELA ERABAKITZEKO ERANTZUKIZUNA DA:

**a)** Merkaturatze prozesuan partaide diren guztiena, alegia, ehiztariarena, merkatariarena edota jatetxekoarena.
**b)** Ehizakia maneiatu duen azkenekoarena, alegia, merkatariarena edota jatetxekoarena.
**c)** Bakar-bakarrik ehizakia saldu duen ehiztariarena.

**94.** EHIZTARIAREN FAMILIAREN EDO LAGUNEN ARTEAN JATEKOAK BADIRA EZ DA NAHITAEZKOA EHIZAKIAK ANALIZATZEA, BAINA BAI DELA KOMENIGARRIA ALBAITARIAK IKUSKATZEA, BATEZ ERE ONDOKO GAIXOTASUNAK DETEKTATZEKO:

**a)** Tularemia, basurdekia bada, eta trikinosia, erbikia edo untxikia bada.
**b)** Trikinosia, basurdekia bada, eta tularemia, erbikia bada.
**c)** Mixomatosia, untxikia bada, eta trikinosia, eper gorria bada.

**95.** EHIZAKIA LARRUTZEKO ETA ONDOTIK MANEIATZEKO LANETAN:

**a)** Nahitaezkoa da albaitari bat bertan izatea.
**b)** Ezinbestekoa da harakin aditu batek parte hartzea.
**c)** Komenigarria da eskularruak erabiltzea.

**96.** GAIXOTASUNIK EZ KUTSATZEKO, ZER EGIN BEHAR DA BASA ANIMALIEN HARAGIAREKIN?

**a)** Jan aurretik ongi-ongi egina prestatu behar da.
**b)** Izoztea aski da, horrela bakterio eta birus guztiak hiltzen baitira.
**c)** Ehizatu denetik egun batzuetara jan behar da, haragiak “airea hartu” dezan, eta horrela kutsatzeko arriskurik izan ez dadin.

**97.** MENDIAN ZEHAR GABILTZALA, ANIMALIA HILAK EDO LESIOREN BAT DUTENAK EDOTA OHIZ KANPOKO PORTAERA DUTENAK IKUSTEN BADITUGU:

**a)** Hoberena da handik alde egitea, eta ikararik ez sortzen ahalegintzea.
**b)** Animalia horiek hil behar dira, eta berehala lurperatu.
**c)** Ahalik eta lasterren egoeraren berri emanen zaie ehiza-arduradunei eta animalia-osasuneko arduradunei.

## ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

**98.** ARAU-HAUSTE BAT GERTATU DENEAN, EHIZTARI BAT BAINO GEHIAGO IZAN BADIRA ETA ZEHAZKI EZIN BALDIN BADA JAKIN HAIETAKO BAKOITZAREN PARTAIDETZA MAILA:

**a)** Inplikatu guztiak libre utziko dira.
**b)** Inplikatu guztien erantzukizun solidarioa izanen da.
**c)** Barrutiko aprobetxamenduaren titularra izanen da erantzule.

**99.** EHIZAN ARI DIRELA, ADINGABEEK SORTUTAKO KALTE-GALEREN ERANTZULE DIRA:

**a)** Eurek dira erantzule.
**b)** Inor ez da erantzule, adingabekoak direlako.
**c)** Haiek zaintzeko guraso-agintearen edo babespearen titularrak dira erantzule.

**100.** GUARDEK HARRAPATU DUTE PERTSONA BAT EHIZAKO ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOA EGIN DUENA, HAIN ZUZEN ERE ORKATZ BAT HARRAPATU DUENA HARTARAKO BAIMENIK IZAN GABE; ZER EGIN BEHAR DA ORKATZAREKIN?

**a)** Orkatza ehiztariak harrapatu du, beraz ezin diote dekomisatu.
**b)** Arau-hauste administratiboa egiten den guztietan, harrapatutako animalia dekomisatuko da, bizirik nahiz hilik egon.
**c)** Haragia beretako gelditzen ahal du, baina trofeoa dekomisatuko da beti.

**101.** USTEZ ARAU-HAUSTE BAT EGIN DUEN PERTSONA BATI AGINTARITZAKO AGENTE BATEK ARMA KENTZEN AHAL DIO, ETA ZAKURRA DEKOMISATU?

**a)** Bai, uste baldin badu horiek erabili direla ustezko arau-haustea egiteko.
**b)** Bai, zeren eta badaezpadako neurria baita, salaketa guztietan aplikatzen dena.
**c)** Ehiza-zakurrak ezin dira dekomisatu, nahiz eta horiek arau-hauste bat egiteko erabili.

**102.** AZKENEKO ZEHAPENA EDO ZIGORRA ZEHAZTEKO, BEREZIKI HARTUKO DA KONTUAN:

**a)** Arau-haustea egin duenak isuna jartzen zaionean agenteekin duen portaera.
**b)** Arau-hausleak nahita egin ote duen ala ez.
**c)** Arau-hauslearen adina.

**103.** EHIZAN EGINIKO ARAU-HAUSTE ARINAK HONELAXE ZIGORTUKO DIRA:

**a)** 10 eurotik 50 eurora bitarteko isuna eta lizentzia kentzea eta hura berriz eskuratzeko ezgaiturik gelditzea gutxienez hiru urterako eta gehienez bost urterako.
**b)** 50 eurotik 500 eurora bitarteko isuna eta lizentzia indarrik gabe uztea gutxienez hilabete baterako eta gehienez urtebeterako.
**c)** 500 eurotik 2.000 eurora bitarteko isuna eta lizentzia kentzea eta hura berriz eskuratzeko ezgaiturik gelditzea gutxienez urte baterako eta gehienez hiru urterako.

**104.** EHIZAN EGINIKO ARAU-HAUSTE LARRIAK HONELAXE ZIGORTUKO DIRA:

**a)** 50 eurotik 500 eurora bitarteko isuna eta lizentzia indarrik gabe uztea gutxienez hilabete baterako eta gehienez urtebeterako.
**b)** 501 eurotik 2.000 eurora bitarteko isuna eta lizentzia kentzea eta hura berriz eskuratzeko ezgaiturik gelditzea gutxienez urte baterako eta gehienez hiru urterako.
**c)** 2.001 eurotik 6.000 eurora bitarteko isuna eta lizentzia kentzea eta hura berriz eskuratzeko ezgaiturik gelditzea gutxienez hiru urterako eta gehienez bost urterako

**105.** EHIZAN EGINIKO ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK HONELAXE ZIGORTUKO DIRA:

**a)** 50 eurotik 500 eurora bitarteko isuna edo, aukeran, lizentzia indarrik gabe uztea gutxienez hilabete baterako eta gehienez urte baterako.
**b)** 501 eurotik 2.000 eurora bitarteko isuna eta lizentzia kentzea eta hura berriz eskuratzeko ezgaiturik gelditzea gutxienez urte baterako eta gehienez hiru urterako.
**c)** 2.001 eurotik 6.000 eurora bitarteko isuna eta lizentzia kentzea eta hura berriz eskuratzeko ezgaiturik gelditzea gutxienez hiru urterako eta gehienez bost urterako.

**106.** BARRUTIKO TITULARRAK EDO EHIZA APROBETXAMENDUAREN TITULARRAK EGINIKO ARAU-HAUSTEAK DIRENEAN, ZIGORRA IZAN DAITEKE BARRUTI HARTAN EHIZATZEKO BEHIN BETIRAKO GALARAZTEA.

**a)** Arau-haustea arina, larria edo oso larria denean.
**b)** Arau-haustea oso larria denean.
**c)** Gezurra, ehizan aritzea ezin da behin betirako galarazi, ez eta arau-hausteak oso larriak direnean ere.

# 3
# Ehiza antolatu eta kudeatzeko oinarriak

## POPULAZIOEN PRINTZIPIOAK ETA FUNTZIONAMENDUA

**107**. NATUR BALIABIDE BERRIZTAGARRIEI ORO HAR APLIKATZEN ZAION IRAUNKORTASUNAREN KONTZEPTUA DA:

**a)** Saiatzea baliabidearen errendimendua eta ustiapena gehienean mantentzen, baliabidea agortu arte.
**b)** Aprobetxamendua bermatzea, egungo belaunaldiek ahalik onura gehien atera diezaioten duen ahalmena ahuldu gabe eta betiere etorkizunean izanen diren belaunaldien beharrak asetzeko adinakoa izan dadin.
**c)** Aprobetxamenduaren onura handiena bilatzea, kudeatzen ari garen baliabidearen berriztagarritasun ahalmena arriskuan jarrita ere.

**108.** EHIZA APROBETXAMENDUA ANTOLATZEKO ORDUAN, BESTE BALIABIDE ETA HELBURUAK ERE HARTU BEHAR DIRA KONTUAN, HALA NOLA NATURAREN KONTSERBAZIOA, NEKAZARITZA-BASOGINTZA JARDUERA, LANDA GARAPENA, AISIALDI ETA JOSTETA JARDUERAK, ETA ABAR.

**a)** Ez nahitaez, euren interesak kontrajarriak izan daitezkeelako.
**b)** Bai, denek eremu bera partekatzen dute eta zuzeneko harremanak dituzte.
**c)** Ez, aprobetxamendu bakoitza aparte kudeatu behar da.

**109.** EHIZA XEHEKO ESPEZIE SEDENTARIOETAN, POPULAZIOEN DINAMIKA ETA, BERAZ, HAIEN URTEKO APROBETXAMENDUA ZEIN IZAN DAITEKEEN JAKITEKO, OSO GARRANTZITSUA DA:

**a)** Emeen adina eta pisua.
**b)** Urteko emigrazioa eta immigrazioa.
**c)** Sasoi bakoitzeko ugalketaren arrakasta.

**110.** KUDEATZAILEARENTZAT, POPULAZIOAREN DINAMIKA ZEHAT-MEHATZ JAKITEA BEREZIKI GARRANTZITSUA DA:

**a)** Barrutiko ehizarako espezie sedentarioetan.
**b)** Barrutiko ehizarako espezie migratzaileetan.
**c)** Bakar-bakarrik ehiza larriko espezieetan.

**111.** GURE EHIZA BARRUTIKO ESPEZIE SEDENTARIOEN POPULAZIOAREN DINAMIKARI BEGIRA, EZ DUTE ERAGIN HANDIRIK IZATEN EMIGRAZIOAREN ETA IMMIGRAZIOAREN FENOMENOEK, SALBU ETA HALAKO MUGIKORTASUN HANDIKO ESPEZIEAK BADIRA, HALA NOLA:

**a)** Erbia.
**b)** Eperra.
**c)** Basurdea.

**112.** EHIZA BARRUTI BATEKO HARRAPAKARIEN EGINKIZUNARI BURUZ ARI GARELA, BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DA GEZURRA?

**a)** Harrapakariek egokitzen dute euren populazioa haien ehizaki direnen ugaritasunaren arabera, eta salbuespenak salbuespen ez dute arrisku handirik sortzen.
**b)** Harrapakariek ehizatzen dituztenak dira batez ere harrapatzeko errazenak direnak, hala nola gazteak, ahulak, gaixoak edo zaharrak.
**c)** Harrapakariak dira ehiza barruti guztietan arazorik handiena; hortaz, bertako kudeatzailearen eginbeharrik handiena da haiek akabatzea. Hori dela-eta, haragijaleak eta hegazti harrapariak “piztien” artean sartzea oso zentzuzkoa da.

**113.** GURE EHIZA BARRUTIKO EHIZARAKO ESPEZIE BAT OSO URRIA DENEAN, NEURRIAK HARTU BEHAR DIRA, ADIBIDEZ, ESPEZIE HORREN HABITATA HOBETZEKO, HAIEN AURKAKO EHIZAREN PRESIOA MURRIZTEKO ETA HARRAPAKARIEN TASA KONTROLATZEKO. BAINA, HARRAPAKARI GUZTIAK DIRA KALTEGARRI?

a) Bai, eta ehiza espezie bateko animalia bat galtzen bada, zilegi da harrapakari bat akabatzea.
b) Ez, eta bakar-bakarrik arduratu beharko dugu "oportunista" esaten zaien harrapakariekin.
c) Ez, eta bakar-bakarrik ehizatuko ditugu mirotzak, arranoak eta azeriak, horiek direlako Nafarroako ehiza xehearen gainbeheraren errudunak.

**114.** LURRALDE BATEK IZAN DEZAKEEN KAPAZITATEA BATEZ ERE IZATEN DA:

**a)** Harrapakarien kopuruarengatik.
**b)** Habitataren kalitate orokorrarengatik.
**c)** Sasoi bakoitzeko klimatologiarengatik.

**115.** EMAN DEZAGUN SASOI HONETAN GURE BARRUTIAN DEBEKATU DUTELA EPERRAK EHIZATZEA, GUTXIENEKO POPULAZIORIK EZ DAGOELAKO. HORREK ESAN NAHI DU:

**a)** Populazioa ahulegia dela ehiza aprobetxamenduak jasan ahal izateko.
**b)** Teknikariek ez dutela utziko ehizan aritzea hainbat sasoitarako, hain zuzen ere barrutiak izan dezakeen kapazitatea nahikoa lortu arte.
**c)** Ez duela merezi ehizan aritzea eper gutxi dagoelako eta aspergarria izanen litzatekeelako.

**116.** SASOI BAKOITZEKO EHIZARAKO HEGAZTI ESPEZIE MIGRATZAILE BATEN APROBETXAMENDUA ZEHAZTU AHAL IZATEKO, ZEIN DA GAUZARIK GARRANTZITSUENA?

**a)** Sasoi bakoitzean barruti horretan zenbat hegazti dauden.
**b)** Espezie horren egoera zein den bere hedapen eremu osoan.
**c)** Barrutiko kideen eskaera zein den.

**117**. EUROPAKO IPARRALDEAN ETA ERDIALDEAN IZANDAKO HOTZ BOLADA BATENGATIK, OILAGOR KOPURUAK GORA EGIN DEZAKE NAFARROAKO BASOETAN, BAINA BESTE URTE BATZUETAN HEGAZTI MOTA HORREN KOPURUA TXIKIA IZAN DAITEKE.

**a)** Egia, eta horregatik aprobetxatu behar dira ahalik eta gehien espezie migratzaileak pilatzen diren garai horiek.
**b)** Europako hotz bolada batengatik izanda ere, saiatuko gara ehizatzen ahalik eta oilagor gehien, zeren eta gerta daiteke hurrengo urtean erdiak ere ez ikustea.
**c)** Espezie migratzaileen ehizan beti izaten da zalantza hori, baina interesagarria izanen litzateke kupo batzuk errespetatzea, populazioari kalte gehiegi ez egiteko.

**118**. BARRUTIAN EGINIKO INBERTSIOEK (HESKAIAK, LABORANTZA TXIKIAK, UR ASKAK, LARREAK HOBETZEA, ETA ABAR), EHIZAKIEN BIZILEKU IZATEKO GAITASUNA HOBETZEKO EGITEN DIRENEK:

**a)** Hobetzen dute ehizan ehiztariek lortzen duten errendimendua, bai epe ertainera bai epe luzera.
**b)** Edertzen dute paisaia, nahiz eta ehizaki gutxiago izan.
**c)** Arazoak alferrik sortzen dituzte.

**119.** EHIZA ESPEZIE BAT DESAGERTU DENEAN GURE BARRUTITIK, HONA HEMEN IRTENBIDEAK:

**a)** Haztegiko (granjako) animaliak sartzea, lehenagoko populazioa berreskuratu ahal izateko.
**b)** Beste ezertan hasi baino lehen, desagertzeko arrazoiak zein izan diren bilatzea, eta ondoren haiek zuzentzea.
**c)** Harrapakariak kontrolatzea.

**120.** EHIZARAKO ESPEZIE BATEKO ANIMALIA GUTXI DAUDENEAN, ETA HAREN KAPAZITATETIK BEHERA DAGOENEAN, KUDEATZAILEEK HONAKO HAU EGIN BEHAR DUTE:

**a)** Animalia gehiago sartu, nahi den kopurua lortu arte.
**b)** Behar diren lanak egin, bertako animalia basatien populazioa lehengoratu arte.
**c)** Ehizan segitu orain arte bezala, eta itxoin umaldi-urte ona izan arte.

## ANTOLAMENDURAKO LANABESAK ETA EHIZA ANTOLATZEKO PLANAK

**121.** EHIZA ANTOLATZEKO PLANEI BURUZ, NAFARROAKO EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO 17/2005 FORU LEGEAK HONELA DIO:

**a)** Gaur egun, barruti bakoitzean ez da Ehiza Antolatzeko Planik egin behar; horren ordez Legeak sortu ditu Eskualde Planak, barruti batzuk hartzen dituztenak.
**b)** Ehizan aritzea zilegi izanen da, soil-soilik, ehiza barrutietan edo ehiza kontrolatuko eremuetan, nahiz eta ehiza antolatzeko plan indardunik ez izan.
**c)** Ehiza Antolatzeko Planak dira ehizaren kudeaketarako oinarrizko dokumentuak, bertan sartu behar baitira Ehiza Antolatzeko Eskualde Planetan ezarritako kudeaketa-ildo oinarrizkoak.

**122.** NAFARROAKO EHIZARI ETA ARRANTZARI BURUZKO 17/2005 FORU LEGEAREN ARABERA, ZER DA EHIZA ANTOLATZEKO ESKUALDE PLANA?

**a)** Plan bat, Ehiza Antolatzeko ohiko Plana ordezkatzen duena; izan ere, gaur egun ez da beharrezkoa barruti bakoitzak bere Plana izatea.
**b)** Plan bat, eskualdeetako ehiza barrutiek bete beharreko kudeaketa-ildo oinarrizkoak ezartzen dituena.
**c)** Plan bat, ehiza barrutietan eta ehiza kontrolatuko eremuetan sartuak ez dauden eremuetako ehiza antolatzen duena, hau da, eremu libreetan ehizan aritu ahal izateko.

**123.** BARRUTIKO KUDEAKETAREN ARDURADUNAK SASOI BAKOITZEAN DOKUMENTU BAT AURKEZTU BEHAR DU, ETA BERTAN SARTU ESPEZIEEN KONTROLA, EGUTEGIA, EHIZA KUPOAK ETA HARRAPATUTAKO EHIZAKIENA. ZEIN DA DOKUMENTU HORREN IZENA?

**a)** Urteko Kudeaketa Plana.
**b)** Ehiza Antolatzeko Plana.
**c)** Ehiza Antolatzeko Eskualde Plana.

**124.** EHIZAN ARITU AHAL IZATEKO, NAHITAEZKOA AL DA EHIZA ANTOLATZEKO PLANA (EAP) IZATEA, EHIZTARIEN LAGUNTZAZ TEKNIKARIEK PRESTATZEN DUTENA?

**a)** Bakar-bakarrik Natur Parkeetan eta gainerako Naturgune Babestuetan ehizatu ahal izateko.
**b)** Bakar-bakarrik Ehiza Barruti Pribatuetan ehizatu ahal izateko.
**c)** Bai, zeren eta Nafarroan ehizan aritu baitaiteke bakar-bakarrik ehiza barrutietan eta EAP indarrean duten ehiza kontrolatuko eremuetan.

**125.** ZERGATIK EGITEN DA EHIZA ANTOLATZEKO PLANA (EAP)?

**a)** Funtsean, tramite burokratikoa besterik ez dena betetzeko.
**b)** Informazioa nahikoa izateko, gure barrutiko ehizako baliabideen kudeaketa egokia egiteko eta aprobetxamendu antolatua eramateko.
**c)** Ehiza barrutiko titularraren lanabesa da, baimen osoa ematen diona 5 urtez ehizan aritu ahal izateko, ehizaki guztiak desagertzen diren arte.

**126.** EHIZA BARRUTI BATEAN, GEHIENEZ ERE ZENBATETIK BEHIN GAURKOTU BEHAR DA EHIZA ANTOLATZEKO PLANA (EAP)?

**a)** 2 urtetik behin.
**b)** 5 urtetik behin.
**c)** 10 urtetik behin.

**127.** BARRUTI BATEKO EHIZA ANTOLATZEKO PLAN BATEN HELBURUAK FINKATZERAKOAN, FUNTSEZKO FAKTOREA DA:

**a)** Bakar-bakarrik Planaren hasieran zenbat animalia dauden zehaztea.
**b)** Bakar-bakarrik ingurune haren animaliak hartzeko ahalmena zehaztea.
**c)** Plana egin baino lehen, populazioak ebaluatzea eta ingurunearen gaineko azterlana egitea.

**128.** EHIZA XEHEKO ESPEZIE SEDENTARIOAK EHIZATZEKO BALDINTZARIK EGOKIENAK ZEHAZTEN DITUGUNEAN, IRUDIKATZEN DUGU:

**a)** Baso heldu bat, landare autoktonoekin.
**b)** Mosaikoen itxurako laborantza eremua, heskaiekin eta eremu landugabeak tarteka.
**c)** Zerealen zelai zabal bat.

**129.** BARRUTI BATERA EGIN DUGU BISITA, ETA OHARTU GARA EHIZA LARRIKO ESPEZIEAK EHIZATZEKO OSO EGOKIA DELA, HAIN ZUZEN ERE:

**a)** Ibai handi bat dagoelako, bere ibarbasoarekin.
**b)** Laborantza lur txikiak daudelako, heskaiekin eta eremu landugabeak tarteka.
**c)** Zuhaitz geruza ederra duelako, soilguneak tartekatuz, eta oihanpe zabalak dituelako.

**130.** EHIZA ANTOLATZEKO PLANETAN, HABITATA HOBETZEKO PROGRAMAK BEHARREZKOAK OTE DIRENEKO AUZIAN:

**a)** Garrantzi eskaseko kontuak dira, ahalegin handia eskatzen dutenak, eta haien emaitzak ez dira hainbesterainokoak.
**b)** Lehentasunezko kontuak dira, zeren eta ehizaren aprobetxamendua hobetuko baita, bai epe motzera bai epe luzera.
**c)** Habitata hobetzen ez da hainbeste diru edo denbora xahutu behar, hobe da barrutiko dirua erabiltzea eperrak eta untxiak bertan askatzen.

**131.** NAFARROAKO HEGOALDEKO ZEREAL LURRETAKO ZELAI BATEAN, HABITATA HOBETZEKO ONDOKO JARDUERA HAUEN ARTEAN, ZEIN USTE DUZU DELA EGOKIENA?

**a)** Sastrakak usu dauden lekuetan bakanketa lanak egitea eta soilguneak sortzea, oreinek belarra aiseago aurki dezaten.
**b)** Faunarako ereintzak egitea, hau da zerealak eta lekariak landatzea mosaiko gisa, eta ura edateko tokietarako bideak hobetzea.
**c)** Hoberena da barrutia janleku eta edanleku artifizialez betetzea.

**132.** EHIZA ANTOLATZEKO PLANEN BARRENEAN DAUDEN KALTEEI AURRE EGITEKO PROGRAMAK BEREZIKI BI NEURRI BILTZEN DITU:

**a)** Aurreneurriak eta birpopulaketak, horrela, animalia gehiago izanen baitira eta, gainera, sobera basatiak ez direnez, kalte txikiagoak egingo baitituzte.
**b)** Aurreneurriak eta, zein espeziek eragin duen kaltea, haren populazioa kontrolatzea.
**c)** Kaltea eragin duen espeziearen populazioa kontrolatzea, erabat desagertu edo akabatu arte, eta kalte-ordainak ematea.

**133.** GURE BARRUTIAN, NEKAZARI BATEK ARTOA LANDATU DU FINKA BATEAN, ARTADI EDO KARRASKADI USU BATEK ERABAT INGURATUA DUEN BATEAN. ZER EGIN DAITEKE BASURDEEK ERAGITEN AHAL DITUZTEN KALTEAK GALARAZTEKO EDO GUTXITZEKO?

**a)** Artasoroa erabat inguratzea, hari bikoitzeko artzain elektriko bat itzuli-itzulian paratuta.
**b)** Arto-landare bakoitzari bere babesgarria jartzea, basurdeek landareari ausiki egin ez diezaioten.
**c)** Ez daiteke deus ere egin, artasoroa bera da lekuz aldatu behar dena.

**134.** GURE BARRUTIAN BADA FINKA BAT HARIZTI BATEK INGURATUA. HARIZTI HORRETAN ORKATZAK USU IKUSTEN DIRA ETA NEKAZARI BATEK FINKA HORRETAN INTXAURRONDOAK LANDATU DITU. ZER DA HOBERENA ORKATZEK ERAGITEN AHAL DITUZTEN KALTEAK GALARAZTEKO EDO GUTXITZEKO?

**a)** Intxaurdian eta halako 200 metroko segurtasun tarte batean ikusten diren orkatz guztiak ehizatzea.
**b)** Intxaurrondo bakoitzari bere babesgarria paratzea.
**c)** Ez daiteke inolako aurreneurririk hartu.

## ZENTSUA EGITEKO METODOAK

**135.** NAFARROAN DAGOEN BASURDEAREN POPULAZIOAREN TAMAINA JAKITEKO, ZEIN DA METODORIK HOBERENA?

**a)** Ehiza-uxaldietan ikusten direnak kontatzea.
**b)** Gaueko joan-etorrietan ikusten direnak kontatzea.
**c)** Arreske edo inaus daudenean, “marrualdian” alegia, ikusten direnak kontatzea.

**136.** GAUEKO TRANTSEKTUETAN ARGI-FOKOAK ERABILTZEN DIRA HONAKO HAUEK UGARI OTE DAUDEN JAKIN AHAL IZATEKO:

**a)** Untxia, erbia eta azeria.
**b)** Erbia, untxia eta galeperra.
**c)** Pagausoa, erbia eta eperra.

**137.** NAFARROAN DAGOEN EPER GORRI UGALKORRAREN POPULAZIOAREN TAMAINA JAKITEKO, ZEIN DA METODORIK HOBERENA?

**a)** Gauean egiten dituzten joan-etorrietan ikusten direnak kontatzea.
**b)** Ehiza-uxaldietan ikusten direnak kontatzea.
**c)** 5 ehiztarik osaturik ibilizko talde-ehizako ("mano") uxaldiak egitea, otsailean edo martxoan.

**138.** GAUEKO TRANTSEKTUAK NORANAHIKO AUTOETATIK ETA ARGI-FOKOEKIN ERABILTZEN DIRA HONAKO HAUEK UGARI OTE DIREN JAKIN AHAL IZATEKO:

**a)** Basurdea eta oreina.
**b)** Oilagorra eta eperra.
**c)** Pagausoa, erbia eta eperra.

**139.** NORANAHIKO AUTOETAN EGUNEZ EGITEN DIREN TRANTSEKTUAK ERABILTZEN DIRA HONAKO HAUEK UGARI OTE DAUDEN JAKIN AHAL IZATEKO:

**a)** Basurdea, orkatza eta oreina.
**b)** Oilagorra eta eperra.
**c)** Eperra, mika eta belabeltza.

**140.** EGUNEZ, EGUNSENTIAN NAHIZ ILUNABARREAN, OINEZ EGITEN DIREN TRANTSEKTUAK ERABILTZEN DIRA HONAKO HAUEK UGARI OTE DAUDEN JAKIN AHAL IZATEKO:

**a)** Basurdea eta azeria.
**b)** Orkatza eta oreina.
**c)** Erbia eta eperra.

## ERABILERA ZEHATZETARAKO EREMUAK

**141.** EHIZA ERRESERBA BATEAN ARITU AHAL IZATEKO, ONDOKO BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DA GEZURRA?

**a)** Beti izanen da zilegi ehizan aritzea, baina errreserbatua izaten da herriko ehiztariendako.
**b)** Salbuespen gisa aritzen ahal da ehizan, baina halako osasungarritasun edo segurtasun publikoak direla medio.
**c)** Salbuespenez, baimena eman daiteke ehizan aritzeko, baina ehizakiek eragindako kalteak murrizteko.

**142.** EHIZA-BABESLEKU BATEAN ARITU AHAL IZATEKO, ONDOKO BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DA ZUZENA?

**a)** Debekatuta dago ehizatzeko diren hainbat espezie ehizatzea.
**b)** Oro har, ez daiteke ehizatu ezpezie bakar bat ere.
**c)** Ehizaren babeslekuetan, harrapakariak bakarrik ehizatu daitezke.

**143.** EHIZA BARRUTI BATEAN ZAKURREN EREMUA PARATU NAHI BADUGU, ASKE IBIL DAITEZEN ETA HEZI AHAL IZATEKO, NON PARATUKO DUGU?

**a)** Animali espeziendako balio eskasekoak edo baliogabeak diren lurretan.
**b)** Barrutiko erreserbaren mugetan, han ez baita zilegi ehizan aritzea.
**c)** Barrutian non aurki daitezkeen eper gorri gehiago, hantxe bertan.

**144.** EHIZA EREMU BAT EGITEKO, LEGEAK ZENBATEKO AZALERA ONARTZEN DU GEHIENEZ?

**a)** 300 hektarea, baina barrutiko azalera osoaren %10 sekula gainditu gabe.
**b)** 200 hektarea, baina barrutiko azalera osoaren %15 sekula gainditu gabe.
**c)** 100 hektarea, baina barrutiko azalera osoaren %20 sekula gainditu gabe.

**145.** GURE BARRUTIAN OSO EPER GORRI BASA GUTXI DAGOELAKO, EZ DAITEKE HORRELAKORIK EHIZATU. HORREXEGATIK, ASMOA DUGU EREINDAKO EHIZA EREMUAN HAZTEGIKO EPERRAK ASKATU ETA EHIZATZEKO.

**a)** Ideia ona da baina Ehiza Antolatzeko Planean agertu behar du.
**b)** Haztegiko eperrez aparte, ongi legoke faisai batzuk ere askatzea.
**c)** Ez da zilegi haztegiko eperrak askatzea geure Ereindako Ehiza Eremuan, izan ere eper basaren arrazaren garbitasuna zaindu behar da eta gaixotasunak galarazi.

**146.** EHIZA BARRUTI BATEAN JARRI BEHAR DUGU GALEPERREN EREMU BAT, NON JARRI BEHAR DA?

**a)** Zereal alorren zelaietan.
**b)** Mosaiko gisako laborantza-mota desberdinetako lurretan.
**c)** Halako mendate eta lepoetan, hegazti migratzaileen pase handia dauden haietan.

## ZAINTZA

**147.** EHIZAZAINAREN EGINKIZUNAK DIRELA-ETA, BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DAGO OKER?

**a)** Ehizazainaren eginkizun bakarra da isilpeko ehiztariak kontrolatzea.
**b)** Ehizazaina da praktikan jarri behar duena barrutiko titularrak eta teknikariak adostu duten kudeaketa.
**c)** Ehizazaina da bere barrutiko aprobetxamendu arrazionala egiteko moduak jarri behar dituena.

**148.** Kendu

**149.** Kendu

# 4
# Ehizatzeko espezieak

## ANTZARA

**150.** ANTZARA HANKAGORRIZTA HEGAN DOANEAN IDENTIFIKATZEKO EZAUGARRIRIK NABARMENENAK DIRA:

**a)** Gorputzean eta hegaletan kolore grisaxka uniformeak eta ispilua urdinxka.
**b)** Gorputzean eta hegaletan kolore grisaxka uniformeak eta ispilua zurixka.
**c)** Gorputzean eta hegaletan kolore grisaxka uniformeak eta hegalaren aurreko aldea zurixka edo zuria.

**151.** ANTZARA HANKAGORRIZTAK NAFARROAN IZATEN DIRA:

**a)** Sedentarioak.
**b)** Sedentarioak, baina baita migratzaileak eta negutarrak ere.
**c)** Negutarrak, eta kopuruak gora egiten du migrazio-pasetan.

**152.** NAFARROAN IKUSTEN DIREN ANTZARA HANKAGORRIZTAK, NONDIK DATOZ?

**a)** Europako erdialdetik eta iparraldetik heldu dira.
**b)** Asiako ekialdetik heldu dira.
**c)** Afrikako Saharaz beheitiko eskualdetik heldu dira.

**153.** LANDA ZELAIETAN BARNA PASEOAN GABILTZALA, ANTZARA HANKAGORRIZTEN SALDO BAT IKUSI DUGU ZEREAL-LUR BATEN UZTONDOEN GAINEAN PAUSATURIK:

**a)** Ezinezkoa da, hegazti mota hau erabat uretakoa da eta.
**b)** Izan daiteke, urtokietatik hurbil dauden zereal-lurren uztondoak bisitatzen ditu.
**c)** Jakina, habitat hori du gogokoena.

**154.** NAFARROAN NOIZ DA ANTZARA HANKAGORRIZTA EHIZATZEKO SASOIA?

**a)** Otsailaren hasieratik irailaren bukaerara bitarte. **b)** Abuztuaren erdialdetik irailaren erdialdera bitarte. **c)** Azaroaren hasieratik urtarrilaren bukaerara bitarte.

## BASAHATEA

**155.** HEGAN DOAZENEAN, BASAHATEEK EZAUGARRI NABARMENA DUTE:

**a)** Ispilua berdea dute.
**b)** Ispilua urdina dute.
**c)** Ez dute ispilurik.

**156.** KOLOREARI DAGOKIONEZ, BASAHATEEN DIMORFISMO SEXUALA DA:

**a)** Arrak ikusgarriak dira eta emeak apalxeagoak.
**b)** Emeak ikusgarriak dira eta arrak apalxeagoak.
**c)** Ez dute dimorfismo sexualik agertzen.

**157.** BASAHATEEI BURUZ ARI GARELA, ESATEN DUGUNEAN “MANKONAK" EDO "MIKALDIKOAK” DIRELA, ZER DIRA?:

**a)** Habian dauden kumeak, oraindik segurantzarik gabeak, distantzia handietara hegatzeko ausartzen ez direnak.
**b)** Tiroz zauritutako ahateak, beraz, hegatzeko kapazak ez direnak.
**c)** Oraindik lumajea osatu gabe dutenak eta, beraz, hegatzeko kapazak ez direnak.

**158.** NAFARROAN DAUDEN BASAHATEAK IZATEN DIRA:

**a)** Hegazti negutarrak.
**b)** Beti hegazti sedentarioak, eta nonahi eta kopuru handian hedatuak daudenak lurralde osoan.
**c)** Hegazti sedentarioak, eta beste batzuk negutarrak, Europatik etorri direnak.

**159.** NAFARROAN BASAHATEA EHIZATZEKO SASOIA DA:

**a)** Otsailaren hasieratik irailaren bukaerara bitarte.
**b)** Zenbait tokitan eta erdi-debekualdian baimena ematen da haiek ehizatzeko, abuztuaren erdialdetik irailaren erdialdera bitarte.
**c)** Zenbait tokitan baimena ematen da udaberrian ehizatzeko, apiriletik ekainera bitarte.

## ZERTZETA ARRUNTA

**160.** HEGAN DOAZENEAN, ZERTZETA ARRUNTEK EZAUGARRI NABARMENA DUTE:

**a)** Ispilua berde-beltza dute eta tamaina txikikoak dira.
**b)** Ispilua urdina dute eta tamaina ertainekoak dira.
**c)** Ispilua urdina dute eta tamaina txikikoak dira.

**161.** ENTZUTZEN BADUGU ZERTZETA ARRUNTEK OSO NABARIA DUTELA DIMORFISMO SEXUALA, ZERTAZ ARI DIRA?

**a)** Arren eta emeen arteko tamaina desberdinaz.
**b)** Arren eta emeen arteko lumaje desberdinaz.
**c)** Arren eta emeen arteko tamaina eta lumaje desberdinaz.

**162.** NAFARROAN, ZEIN SASOITAN IZATEN DIRA UGARIAK ZERTZETA ARRUNTAK?

**a)** Udaberrian.
**b)** Uda hasieran.
**c)** Udazkenean eta neguan.

**163.** NOLAKOA DA, GEHIENETAN, ZERTZETA ARRUNTAREN PORTAERA?

**a)** Taldekoia, migrazioetan eta negupasan daudenean.
**b)** Bakartia, ugaltzeko garaian izan ezik.
**c)** Bakartia, migrazio garaian izan ezik.

**164.** ZERTZETA ARRUNTAREN OHITUREI BURUZ, ESAN DEZAKEGU AHATEA DELA BAINA:

**a)** Murgilaria.
**b)** Ur gainekoa.
**c)** Bitakoa.

**165.** NAFARROAN NOIZ DA ZERTZETA ARRUNTA EHIZATZEKO SASOIA?

**a)** Otsailaren hasieratik irailaren bukaerara bitarte. **b)** Abuztuaren erdialdetik irailaren erdialdera bitarte. **c)** Azaroaren hasieratik urtarrilaren bukaerara bitarte.

## KOPETAZURI ARRUNTA

**166.** KOPETAZURI ARRUNTA EZAGUTZEA OSO ERRAZA DA; IZAN ERE:

**a)** Hegazti helduak erabat beltzak dira eta kopetako ezkutua zuria dute; gazteak, berriz, argixeagoak dira eta mokoa ez oso nabarmendua.
**b)** Arrak erabat beltzak dira eta emeak argixeagoak, baina biek dute kopetako ezkutua gorria.
**c)** Arrak erabat beltzak dira eta kopetako ezkutua zuria dute; emeak, berriz, nabar-argiak dira eta mokoa ez oso nabarmendua.

**167.** LAGUN BATEK ESAN DIGU KOPETAZURI ARRUNTAK IKUSI DITUELA URPEAN MURGILTZEN.

**a)** Izan daiteke, noizbehinka sartzen da ur azpira arrainak harrapatzera.
**b)** Izan daiteke, maiz samar murgiltzen da uretara, halako landareak eta ur azpiko ornogabeak harrapatzera.
**c)** Adarra jotzen ari zaigu, ur azaleko hegaztia da, ez da sekula ur azpira sartzen.

**168.** NAFARROAKO KOPETAZURI ARRUNTAREN PUPULAZIOA DA:

**a)** Sedentarioa, negutar batzuekin batera.
**b)** Negutarra, eta kopuruak gora egiten du migrazio-pasetan.
**c)** Udakoa, eta kopuruak gora egiten du migrazio-pasetan.

**169.** UR PUTZU BATERA HURBILDU GARA ETA ALTXATU DITUGU URETAKO HEGAZTI BATZUK, ZEINAK UR GAINEAN LASTERRALDI LUZEAK EGITEN HASI BAITIRA, LEZKADIAN EZKUTATU ARTE. PORTAERA HORI IKUSITA, SEGURU ASKI IZANEN DIRA:

**a)** Basahateak.
**b)** Zertzeta arruntak.
**c)** Kopetazuri arruntak.

**170.** NAFARROAN NOIZ DA KOPETAZURI ARRUNTA EHIZATZEKO SASOIA?

**a)** Otsailaren hasieratik irailaren bukaerara bitarte. **b)** Abuztuaren erdialdetik irailaren erdialdera bitarte. **c)** Azaroaren hasieratik urtarrilaren bukaerara bitarte.

## HEGABERA

**171.** HEGABERA EZAGUTZEKO EZAUGARRI NABARMENA DA:

**a)** Moko luzea, limikola guztiek halakoa baitute.
**b)** Buruko mototxa tente, eta haren lumajeko zuriaren eta beltzaren arteko kontrastea.
**c)** Haren lumaje kriptikoa.

**172.** HEGABEREN SALDOAK URRUTITIK EZAGUTZEN DIRA:

**a)** Noraezean hegatzen direlako, hegal astindu mantsoak emanez; hau da, tximeleten antzera hegatzen dira.
**b)** Saldoa indartsu eta abiadura handian heldu delako, ahateen antzera.
**c)** Egitura geometrikoa osatuz heldu direlako, antzara hankagorrizten antzera.

**173.** NAFARROAKO HEGABEREN POPULAZIOA DA:

**a)** Hegazti negutarrak, eta gutxi batzuk autoktono ugalkorrak.
**b)** Hegazti negutarrak eta ugaltzekoak, kopuru berdinean.
**c)** Inoizka etortzen direnak Europako hegoaldeko hotz bolada bortitzetatik ihesean.

**174.** NAFARROAN HEGABERAREN UGALKETARI BURUZ ARI GARELA, ESAN DAITEKE:

**a)** Oso bikote gutxi direla ugalkorrak, eta ez dagoela kolonia handirik.
**b)** Nafarroa osoan ugaltzen dela.
**c)** Ez dela sekula ugaldu Nafarroan.

**175.** NAFARROAN NOIZ DA HEGABERA EHIZATZEKO SASOIA?

**a)** Otsailaren hasieratik irailaren bukaerara bitarte. **b)** Abuztuaren erdialdetik irailaren erdialdera bitarte. **c)** Azaroaren hasieratik urtarrilaren bukaerara bitarte.

## ISTINGOR ARRUNTA

**176.** EHIZTARIOK ESATEN DUGUNEAN "BECACINA", ZER ESAN NAHI DUGU?:

**a)** Oilagorren kumeak eta oilagor txikiak.
**b)** Istingor arruntak.
**c)** Hegaberak.

**177**. ISTINGOR ARRUNTEK BADITUZTE BURUAN OSO BEREZKO LERRO MODUKO MARRAK, NOLAKOAK DIRA?

**a)** Luzetarakoak.
**b)** Zeharkakoak, oilagorrek dituztenen gisakoak.
**c)** Gezurra, oilagorra da bakarra buruan marrak dituena.

**178.** ISTINGOR ARRUNTEK SUMATZEN DUTENEAN IKUSI DITUZTELA ETA ALTXATUKO DITUZTELA, BETI ATERATZEN DIRA HEGAKA:

**a)** Sigi-sagaka eta oihu garratzak eginez.
**b)** Zuzen-zuzeneko hegadetan eta oihu garratzak eginez.
**c)** Ezker-eskuineko hegadetan eta oso isilka, sekula ez baitu oihu edo soinurik egiten.

**179.** ISTINGOR ARRUNTA, NAFARROAKO ZEIN LEKU MOTATAN AURKI DAITEKE UGARIEN?

**a)** Laborantzako zereal alorretan, eta batez ere udan.
**b)** Sastraka mediterraniarretan, arboladiak baldin badira tarteka.
**c)** Ibai eta aintziretako sakonera txikiko ur-bazterretan.

**180.** NAFARROAN NOIZ DA ISTINGOR ARRUNTA EHIZATZEKO SASOIA?

**a)** Otsailaren hasieratik irailaren bukaerara bitarte. **b)** Abuztuaren erdialdetik irailaren erdialdera bitarte. **c)** Azaroaren hasieratik urtarrilaren bukaerara bitarte.

## OILAGORRA

**181.** MORFOLOGIARI BEGIRA, OILAGORREN EZAUGARRIA DA:

**a)** Kobre koloreko lumaje mimetikoa, mokoa oso luzea eta eper gorriaren tamainakoa.
**b)** Lumaje berdexka mimetikoa, mokoa oso luzea eta tamaina denetarikoa.
**c)** Mokoa oso luzea, lumaje mimetikoa eta istingor arruntaren tamainakoa.

**182.** ENTZUN DUGU OILAGORREK ETA ISTINGOR ARRUNTEK BURUAN ZEHARKAKO MARRAK BADITUZTELA:

**a)** Egia da, batzuek nahiz besteek buruan zeharkako marrak dituzte.
**b)** Gezurra da, istingor arruntek marrak badituzte baina luzetarakoak.
**c)** Gezurra da, biek dituzte luzetarako marrak.

**183.** EMAN DEZAGUN JAKIN NAHI DUGULA ESKUAN DUGUN OILAGORRAREN ADINA, ZER BEGIRATU BEHAR DUGU?

**a)** Tamaina eta pisua, helduena beti handiagoa delako.
**b)** Arraun-luma nagusiak noraino dituen gastatuak eta luma estaltzaileen kolorea.
**c)** Hanketako ezproia eta arraun-luma nagusien punten kolorea.

**184.** NEGUAN, OILAGORREK GOGOKOEN DITUZTEN JAKIAK DIRA:

**a)** Udazkeneko eta neguko fruituak.
**b)** Zizareak.
**c)** Barraskiloak.

**185.** OILAGOR-EHIZARA ATERA NAHI DUGU; HORTAZ, BARRUTI BATZUK AUKERATUKO DITUGU, BETIERE HONAKOAK DITUZTENAK:

**a)** Larreak eta belardiak.
**b)** Arboladiak.
**c)** Eremu hezetsuak.

**186.** OSTATUAN GAUDELA ENTZUN DUGU OILAGORREN HABIA AURKITU DUTELA IRATIKO PAGADI BATEAN.

**a)** Ezinezkoa da, zeren eta Nafarroan bakarrik izan daiteke edo paseko hegaztia edo negutarra.
**b)** Egia izan daiteke, izan ere Nafarroako hainbat pagaditan oso gutxi baina ugaldu egiten da.
**c)** Oso bitxia da; izan ere, ugaltzekotan artadietan bakarrik ugaltzen da.

**187.** OILAGORRAREN MIGRAZIOARI BURUZ, NOIZ HASTEN DA NABARITZEN HAREN ETORRERA NAFARROAN?

**a)** Irailean, eta gehienak urrian.
**b)** Urrian, eta gehienak azaroan eta abenduaren hasieran.
**c)** Azaroan, eta gehienak urtarrilean.

**188.** OILAGOR-EHIZARI BURUZ HIZKETAN ARI GARELA, INOLAKO DUDARIK GABE ESAN DEZAKEGU:

**a)** Zakurra ez dela hain beharrezkoa eta, batez ere, ehiztariaren trebezia dela balio duena.
**b)** Zakurraren lana ezinbestekoa dela.
**c)** Zakurraren lana ezinbestekoa dela, baina erdi-debekualdian bakarrik.

**189.** OILAGORRA EHIZATZEKO MODU HAUETATIK, ZEIN DAGO DEBEKATUA NAFARROAN?

**a)** Oilagorraren ibilizko bakar-ehiza ("salto"), zakur erakuslearekin.
**b)** Bi edo gehiagoko ehiztari taldean aritzea oilagor-ehizan, zakur erakuslearekin.
**c)** Zelatan, oilagorra igarotzen denean, eta ur-putzuetan.

**190.** NAFARROAN NOIZ DA OILAGORRA EHIZATZEKO SASOIA?

**a)** Otsailaren hasieratik irailaren bukaerara bitarte.
**b)** Abuztuaren erdialdetik irailaren erdialdera bitarte.
**c)** Urriaren erdialdetik urtarrilaren bukaerara bitarte.

## EPER GORRIA

**191.** KUDEAKETA EGOKIA EGIN NAHI BADA, OSO GARRANTZITSUA DA BOTATAKO EPERREN ADINA (URTEKO GAZTEAK ETA HELDUAK) EZAGUTZEA. NOLA EGINEN ZENUKE?

**a)** Hegalaren muturreko azken bi lumen itxura eta kolorea aztertuta.
**b)** Hegaztiaren alboa aztertuta, izan ere gazteek ez dute izaten hain marraduna.
**c)** Ezinezkoa da bereiztea.

**192.** BOTATAKO EPER GORRI BATEN SEXUA JAKIN NAHI BADUGU, AZTERTU BEHARKO DUGU:

**a)** Ezproiaren tamaina eta hegalaren muturreko azken bi lumen kolorea.
**b)** Pisua. Izan ere, arrak izaten dira beti emeak baino handiagoak eta pisuagoak.
**c)** Isats-lumen luzera.

**193.** EPER GORRIAREN JAKIEI BURUZ, HEGAZTI HAUEK DIRA BATEZ ERE:

**a)** Orojaleak, eta batez ere ornogabeak dituzte gogokoen.
**b)** Landarejaleak, eta batzuetan ornogabeak ere jaten dituzte, batez ere hazkuntzaren lehen faseetan.
**c)** Intsektujaleak, eta batzuetan landareak ere jaten dituzte, batez ere hazkuntzako lehen faseetan.

**194.** EPER GORRIAREN HAZKUNTZAKO LEHEN FASEETAN EPERKUME FRANKO HILTZEN DA ETA HORREGATIK UDA PARTEKO BUKAERA ALDERA ASKOZ ERE GUTXIAGO IZATEN DIRA.

**a)** Bai, eta arrazoi bakarra da harrapakari sobera dagoela.
**b)** Bai, udaberri euritsuegiak suertatzen direnean.
**c)** Bai, eta hori da ugaltzeko duen estrategia naturala, nahiz eta harrapakariak eta eurite handiak direnean haien hilkortasun tasa igo daitekeen eta arriskuan jarri ugalketaren arrakasta sasoi bakoitzean.

**195.** ZER GERTATZEN DA EPER GORRIAREN KUMEEKIN, ARRAUTZETATIK ATERA ONDOREN?

**a)** Berehala uzten dute habia eta arineketan jarraitzen diete gurasoei.
**b)** Habian gelditzen dira lehenbiziko bi asteetan.
**c)** Habian gelditzen dira hegatzeko kapazak diren arte.

**196.** EPER GORRIEN PORTAERA DA:

**a)** Migratzailea.
**b)** Sedentarioa.
**c)** Bitakoa, hau da, Espainiako hegoaldera migratzen dira negua gogorra denean.

**197.** EPER GORRIAK NAFARROAN IZAN DEZAKEEN HABITAT EGOKIENARI BURUZ, DENTSITATERIK ONENAK AURKITZEN DIRA:

**a)** Mosaikozko paisaietan, hau da, han-hemenka zereal lurrak, mahastiak, belardiak eta landugabeak, sastrakak eta basobera dauden haietan.
**b)** Zereal lurretako zelai zabaletan, batez ere garia dagoen haietan.
**c)** Eremu landugabeetan, baina ongi kontserbatuta badaude, alegia, gizakiak eskua sartu gabeko haietan.

**198.** NAFARROAN, EPER GORRIAREN EHIZA BARRUTI HOBERENAK DAUDE:

**a)** Isurialde kantauriarrean.
**b)** Iruñerrian.
**c)** Nafarroako erdialdean eta hegoaldean.

**199.** EPER GORRIA EHITZATZEKO MODURIK OHIKOENA DA:

**a)** Ibilizko bakar-ehizan ("salto") edo ibilizko talde-ehizan ("mano"), betiere zakur erakusleen laguntzarekin.
**b)** Postu finkoan, betiere edanlekuetatik hurbil.
**c)** Zelatan, bainatzeko lekuetatik hurbil.

**200.** NAFARROAN NOIZ DA EPER GORRIA EHIZATZEKO SASOIA?

**a)** Otsailaren hasieratik irailaren bukaerara bitarte. **b)** Abuztuaren erdialdetik irailaren erdialdera bitarte. **c)** Azaroaren hasieratik urtarrilaren bukaerara bitarte.

## GALEPERRA

**201.** ERDI-DEBEKUALDIAN, GALEPERREN ADINA JAKITEKO AZTERTU BEHAR DUGU:

**a)** Arraun-luma nagusiak: puntak oso-osorik eta berriak direnean urteko gaztea da, eta itxura urratukoak direnean eper heldua da.
**b)** Bularraldeko lumen kolorea, gazteek oso marra nabariak izaten baitituzte.
**c)** Mokoaren eta hegalen luzera neurtuta.

**202.** BOTATAKO GALEPERREN SEXUA JAKITEKO, BEGIRATU BEHAR DUGU:

**a)** Ezproien tamaina.
**b)** Zintzurraldeko lumajea.
**c)** Gorputzaren pisua, perdigoiak atera ondoren.

**203.** LEHENBIZIKO GALEPERRAK IRISTEN DIRA GURE LURRALDERA:

**a)** Martxoan.
**b)** Maiatzean.
**c)** Abuztuan, hain justu erdi-debekualdia hasi baino lehenxeago.

**204.** ORAINDIK EZ DA MIGRAZIO GARAIA ETA EMATEN DU GALEPERRAK DESAGERTU DIRELA GEURE EHIZA BARRUTITIK:

**a)** Ez da egia, kontua da gutxiago kantatzen dutela eta ezkutuagoan ibiltzen direla.
**b)** Izan daiteke, zeren eta sumatzen badute bizi-baldintza okerragoak direla alde egiten baitute.
**c)** Egia da, baina harrapakari sobera daudelako gutxitu dira.

**205.** LAGUN BAT ARI DA GALEPERREN MONOGAMIAZ:

**a)** Egia da, gainera batzuetan bizi osoko bikotea osatzen dute.
**b)** Egia da, baina urtero aldatzen dute bikotekidea.
**c)** Gezurra da, poligamoak dira eta.

**206.** GALEPERRAREN KASUAN, ZEINEK DU KUMEAK HAZTEKO ARDURA:

**a)** Arrak.
**b)** Emeak.
**c)** Arrak eta emeak, erdi bana.

**207.** GALEPERRAK EHIZATZERA ERAMAN NAHI GAITUZTE, ETA SEGURU ASKI BARRUTI HURA IZANEN DA:

**a)** Baso autoktonoa, zuhaitz urtetsuak dituena.
**b)** Eremu irekiak dituena, belardi freskoekin.
**c)** Zuhaitz landaketetako barietate handiko eremuak dituena (mahastiak, olibondoak, fruta-arbolak eta abar).

**208.** UGALKETA GARAIAN, GALEPERRA HEDATZEN DA NAFARROAN:

**a)** Nafarroako erdialdeko zereal alorretan barna.
**b)** Foru Komunitate gehienean zehar, belardi alpinoetatik hasi eta Bardearaino.
**c)** Erribera aldeko zereal alorretan barna.

**209.** NAFARROAN NOIZ DA GALEPERRA EHIZATZEKO SASOIA?

**a)** Otsailaren hasieratik irailaren bukaerara bitarte. **b)** Abuztuaren erdialdetik irailaren erdialdera bitarte. **c)** Azaroaren hasieratik urtarrilaren bukaerara bitarte.

## FAISAIA

**210.** HEGAN DOAZENEAN, FAISAIAK OSO ERRAZ EZAGUTZEN DIRA:

**a)** Tamainagatik eta isatsa luzea dutelako, eta hori bi sexuetan gertatzen da, nahiz eta dimorfismo sexuala baduten.
**b)** Bi sexuetan, aurpegian nabari duten karunkula gorriengatik.
**c)** Haien etengabeko aztoramenduzko oihuengatik, korbido batzuek egiten dituztenen antzekoak egiten baitituzte.

**211.** FAISAIAK POLIGAMOAK DIRELA ESATEN DUGUNEAN, PORTAERA BAT DEFINITZEN ARI GARA, ETA HAREN EUZAUGARRIA DA:

**a)** Ar batek hainbat eme estaltzen dituela.
**b)** Eme bat hainbat arrek estaltzen dutela.
**c)** Errunaldi bat baino gehiago izaten dutela.

**212.** ILUNABARREAN PASEOAN GABILTZALA, FAISAI BAT IKUSI DUGU ZUHAITZ BATEAN PAUSATUA:

**a)** Jakina, seguru aski lotokia ariko da prestatzen.
**b)** Oso bitxia da, zer edo zer gertatu izanen zaio zuhaitzera igotzeko.
**c)** Ezinezkoa da, basoilarra izanen zen.

**213.** HABITATA AUKERATZEN DUENEAN, FAISAIAK NAHIAGO IZATEN DU:

**a)** Laborantzako zereal lur lehor eta zabalak, zuhaitz gutxirekin.
**b)** Mendi garaietako pinudiak.
**c)** Denetatik, tarteka baldin baditu arboladiak, soilguneak, laborantzako lurrak, heskaiak eta belardiak, baina betiere inguruan urtokiak baldin badira, hobe.

**214.** NAFARROAN FAISAIA DA ESPEZIE BAT:

**a)** XIX. mendearen bukaeran erabat desagertu zena eta orain berriz sartu dena.
**b)** Asiatik ekarria da.
**c)** Galzorian dagoen espezie bat, bere habitata hondatu delako.

**215**. NAFARROAN NOIZ DA FAISAIA EHIZATZEKO SASOIA?

**a)** Otsailaren hasieratik irailaren bukaerara bitarte. **b)** Abuztuaren erdialdetik irailaren erdialdera bitarte. **c)** Azaroaren hasieratik urtarrilaren bukaerara bitarte.

## PAGAUSOA

**216.** PAGAUSOAREN TAMAINA DA:

**a)** Etxe-usoarena bezalakoa.
**b)** Etxe-usoarena baina dexente handiagoa.
**c)** Etxe-usoarena baina txikixeagoa.

**217.** HEGAN DOANEAN, PAGAUSOA EZAGUTUKO DUGU:

**a)** Bi marra beltz dituelako hegalaren hondo urdinxkaren gainean.
**b)** Zuriune batzuk dituelako hegalaren erdialdean eta lepoaren alboan.
**c)** Ez du ez beltzunerik ez marra beltzik.

**218**. JATEKO DITUEN OHITUREI BURUZ ARI GARELA, ESAN DEZAKEGU PAGAUSOA DELA:

**a)** Batez ere landarejalea.
**b)** Batez ere intsektujalea.
**c)** Orojalea.

**219.** PAGAUSOAREN UGALKETARI BURUZ, ESAN DEZAKEGU:

**a)** Urtean bi errunaldi izaten dituela, eta haietako bakoitzean 4 arrautza.
**b)** Urtean errunaldi bakarra izaten duela, eta horretan 3 arrautza.
**c)** Urtean errunaldi bat, bi edo hiru izaten dituela, eta haietako bakoitzean 2 arrautza.

**220.** NAFARROAN DAUDEN PAGAUSOAK IZATEN DIRA:

**a)** Sedentarioak.
**b)** Sedentarioak, eta beste batzuk negutarrak, izan ere hemen barna igarotzen dira ehundaka mila hegazti Iberiar penintsulako hego-mendebalderantz.
**c)** Negutarrak, migrazio-pase handietan iristen direnak.

**221.** NAFARROAN BARNAKO MIGRAZIOA GERTATZEN DENEAN, NOIZ IZATEN DIRA PAGAUSOAREN PASE BOLADA HANDIENAK?

**a)** Urriaren lehenbiziko hamabostaldian.
**b)** Urriaren bigarren hamabostaldian.
**c)** Azaroaren lehenbiziko hamabostaldian.

**222.** NAFARROAN, PAGAUSOA ETXOLETATIK ETA ZINBELAK ERABILITA EHIZATZEN DA:

**a)** Etxalarren.
**b)** Aralarren.
**c)** Lizarraldean.

**223.** NAFARROAN PAGAUSO GEHIENAK HARRAPATZEN DIRA:

**a)** Pirinio aldeko mendate eta lepoetan.
**b)** Toki baxuenetako etxoletan.
**c)** Erribera aldeko lotokietan.

**224.** NAFARROAN EHIZATZEKO BAIMENDUTA DAUDEN EHIZA-POSTU ETA ETXOLEI BURUZ, PAGAUSOA EGUNERO EHIZATU DAITEKE BAINA DENBORA TARTE HONETAN:

**a)** Urtarrilaren hasieratik martxoaren bukaerara bitarte.
**b)** Urriaren hasieratik abenduaren hasierara bitarte.
**c)** Azaroaren hasieratik urtarrilaren bukaerara bitarte.

## HAITZ-USOA

**225.** HEGAN DOAZENEAN, HAITZ-USOAK ERRAZ EZAGUTZEN AHAL DIRA:

**a)** Gorputzeko eta hegaletako kolore urdinxka uniformeagatik, nahiz eta batzuk badiren hegaletan bi zerrenda beltzen arrastoa dutenak.
**b)** Zuriuneak izateagatik hegaletan eta lepoan.
**c)** Ipurtxuntxurra zuria izateagatik eta hegaletan bi zerrenda beltz oso nabariak.

**226.** ETXE-USOEN ANTZINAKO ETA ZUZENEKO AURREKARIAK DIRA:

**a)** Pagausoak.
**b)** Haitz-usoak.
**c)** Txolomak.

**227.** ETXE-USO BASEK MAIZ KUMEAK HAZTEN DITUZTE:

**a)** Nafarroako herri eta hirien barrenean.
**b)** Afrikako iparraldeko herrietan, eta zerealaren uzta biltzeko garaian iristen dira Nafarroara, non kalte larriak eragiten baitituzte.
**c)** Artadietan hazten dituzte kumeak, baina herrietan izaten dute lotokia.

**228.** USO-EHIZARI BURUZKO ONDOKO BAIEZTAPEN HAUETATIK, ZEIN DA ZUZENA?

**a)** Izan Debekatuta dago etxeko haitz-usoak ehizatzea, nahiz eta basa bihurtuak.
**b)** Haitz-uso basak ehizatzea debekatuta dago Nafarroan.
**c)** Haitz-usoa beti ehizatu daiteke, begiratu gabe hegaztien jatorriari.

## TXOLOMA

**229.** TXOLOMAREN EZAUGARRI MORFOLOGIKOEN ARTEAN, NABARMENTZEKOAK DIRA:

**a)** Zuriuneak lepoan eta hegaletan.
**b)** Hegaletan dituen bi zerrenda beltz nabariak.
**c)** Kolore urdinxka uniformea, eta hegaletako zerrenda beltzen arrastoak.

**230.** HEGAN DOAZENEAN, NOLA BEREIZIKO DITUGU TXOLOMAK ETA PAGAUSOAK?

**a)** Txikiagoak dira txolomak, hegal astindu berdinagoak eta azkarragoak, isatsa laburragoa dute eta ez dute zuriunerik hegaletan.
**b)** Txoloma mantsoago hegatzen da, isatsa dexente luzeagoa du eta ez du zuriunerik hegaletan.
**c)** Txoloma handiagoa da, lasaiago hegatzen da, belabeltzen antzera, eta ez du zuriunerik hegaletan.

**231.** NAFARROAN ETA UGALKETA GARAIAN, TXOLOMA IKUS DAITEKE:

**a)** Lurralde osoan zehar.
**b)** Batez ere erdialdetik iparraldera.
**c)** Batez ere erdialdetik hegoaldera.

**232.** TXOLOMAK NOIZ IKUS DAITEZKE NAFARROAN?

**a)** Migrazioko paseetan bakarrik.
**b)** Neguan eta migrazio-paseetan.
**c)** Urte osoan zehar.

**233.** NAFARROAN EHIZATZEKO BAIMENDUTA DAUDEN EHIZA-POSTU ETA ETXOLEI BURUZ, TXOLOMA EGUNERO EHIZATU DAITEKE BAINA EPE HONETAN:

**a)** Urtarrilaren hasieratik martxoaren bukaerara bitarte.
**b)** Urriaren hasieratik abenduaren hasierara bitarte.
**c)** Azaroaren hasieratik urtarrilaren bukaerara bitarte.

## USAPAL ARRUNTA

**234.** USAPALA HARRAPATZEN DUGUNEAN ETA FALTA BALDIN BADU LEPOKO MARRA ZURI-BELTZA, ZER DA?

**a)** Usapal turkiarra.
**b)** Usapal arrunta baina gaztea.
**c)** Hibridoa da, usapal arruntarena eta usapal turkiarrarena.

**235.** USAPAL ARRUNTAREN URTEKO UGALKETA IZATEN DA, GEHIENETAN:

**a)** Errunaldi bat, 3 arrautzakoa.
**b)** Bi errunaldi, 2 arrautzakoak.
**c)** Hiru errunaldi, 2 arrautzakoak.

**236.** UGALKETAREN ONDOTIK ETA BEHIN MIGRAZIOAN ABIATUTA, NOLAKOA DA USAPAL ARRUNTEN PORTAERA?

**a)** Taldekoiagoa, saldo txikiak osatuz.
**b)** Bakartiagoa, familiak desegiten direlako.
**c)** Taldekoiagoa, ehunka hegaztiko saldoak osatzen dituztelako, usoen gisara.

**237.** NAFARROAN NOIZ DA USAPAL ARRUNTA EHIZATZEKO SASOIA?

**a)** Otsailaren hasieratik irailaren bukaerara bitarte. **b)** Abuztuaren erdialdetik irailaren erdialdera bitarte. **c)** Azaroaren hasieratik urtarrilaren bukaerara bitarte.

## USAPAL TURKIARRA

**238.** NAFARROAN BI USAPAL MOTA DAUDE. EHIZTARIAK GARENEZ, JAKIN BEHAR DUGU:

**a)** Usapal arrunta dela ehizatu daitekeen bakarra.
**b)** Usapal turkiarra dela ehizatu daitekeen bakarra.
**c)** Bi espezieak ehizatu daitezkeela.

**239.** USAPAL ARRUNTAREKIN ALDERATUZ, USAPAL TURKIARRA DA:

**a)** Nafarroan, ehizatzeko tradizio handiagoa duen espeziea.
**b)** Bestea baino hobeki egokitzen dena gizakia bizi den inguruetan.
**c)** Mendialdeko eremuetan bizitzea nahiago duena.

**240.** USAPAL TURKIARRA DA ESPEZIE BAT:

**a)** Beti ugaldu dena Nafarroako Erriberan.
**b)** Hego Amerikatik etorri dena.
**c)** Asiako hegoaldetik etorri dena.

## BIRIGARROAK

**241.** BIRIGARRO BAT BOTA BERRIA DUGU, ETA ALBOKO LUMAK ETA HEGALETAKO AZPIALDEA OKREAK DITU.

**a)** Garraztarroa da.
**b)** Birigarro arrunta da.
**c)** Durdula da.

**242.** LAGUN BATEK ESAN DIGU BIRIGARRO ARRUNTAREN HABIA IKUSI DUELA NAFARROAKO IPARRALDEKO PAGADI BATEAN.

**a)** Ezinezkoa da, espezie migratzailea eta negutarra da.
**b)** Izan daiteke, maiz samar egiten du habia iparraldeko basoetan.
**c)** Ezinezkoa da, habia beti egiten du zelai-alorretako hesietan.

**243.** ZEIN DA NAFARROAN IKUS DAITEKEEN BIRIGARRO MOTARIK TXIKIENA?

**a)** Birigarro arrunta.
**b)** Birigarro txikia.
**c)** Durdula.

**244.** LAGUN BATEK ESAN DIGU AURKITU DUELA BIRIGARRO TXIKIAREN HABIA EBROKO UR BAZTERREKO LAHARREN BATEAN.

**a)** Oker dabil, espezie horrek ez du habia Nafarroan egiten.
**b)** Izan daiteke, espezie horrek maiz egiten du habia Nafarroako erdialdetik hegoaldera.
**c)** Izan daiteke, espezie hori maiz samar ugaltzen da Nafarroako lurralde osoan zehar.

**245.** DURDULEN PORTAERA IZATEN DA:

**a)** Taldekoia, migrazioetan eta negupasa datorrenean.
**b)** Bakartia, urte osoan.
**c)** Taldekoia migrazio garaian, baina bakartia negupasa datorrenean.

**246.** BELAR SORO BATEAN BARNA PASEOAN GABILTZALA, HARIZTI BATEK INGURATUTA, ALTXATU DUGU LURRETIK BIRIGARRO BAT, ISATSAREN KANPOKO LUMEN PUNTAK ZURIAK DITUENA, ZER DA?

**a)** Birigarro arrunta da.
**b)** Garraztarroa da.
**c)** Durdula da.

**247.** BIRIGARRO BAT HEGAN DOANEAN, JAKIN NAHI BADUGU ZEHATZ-MEHATZ ZER ESPEZIETAKOA DEN, ZER HARTU BEHAR DUGU KONTUAN?

**a)** Alboen eta hegalen azpialdeko kolorea, tamaina, kantua eta gorputzaren kolorea.
**b)** Mokoaren eta hanken kolorea eta hegatzeko manera.
**c)** Zein tokitan ikusi dugun, izan ere birigarro bakoitzak badu bere bizitoki berezia.

**248.** BIRIGARROAK EHIZATZEKO MODALITATEAK DIRELA-ETA, ESAN DEZAKEGU GEHIENETAN:

**a)** Galeperren eta usapalen ehiza sasoi berberetan ehizatzen direla, erdi-debekualdian.
**b)** Pagausoaren ehiza sasoi berean ehizatzen dela, postu finkotik.
**c)** Pagausoaren ehiza sasoi berean ehizatzen dela, etxolatik.

**249.** NAFARROAN, ZEIN DA BIRIGARROAK EHIZATZEKO SASOIA?

**a)** Otsailetik irailaren bukaerara bitarte.
**b)** Abuztuaren erdialdetik irailaren erdialdera bitarte.
**c)** Uso migratzailearendako ehiza-postuetatik, zilegi da urriaren hasieratik abenduaren hasierara bitarte, eta hura ehizatzeko baldintza berberetan.

## MIKA

**250.** KANPOAN, MIKAK BEREIZTEA ERRAZA DA, HONENGATIK:

**a)** Zuri-beltzeko kontrastea, isatsa luzea eta hegatzeko modu mantsoa duelako.
**b)** Beltza delako eta oihu garratzekoa.
**c)** Beltza delako eta kantu melodikoa duelako.

**251.** MIKAREN DIETA DA:

**a)** Oportunista eta anitza.
**b)** Gehienetan, haziak besterik ez du jaten.
**c)** Beste espeziekiko predazioan da espezializatua.

**252.** LAGUN BATEK AIPATU DIGU MIKA BATEK HABIA ETA KUMEAK EGIN DITUELA BERE HERRIKO PARKEAN:

**a)** Ezinezkoa da.
**b)** Izan daiteke, maiz egoten baitira parke eta lorategietan.
**c)** Normala da, hirietan baizik bizi den espeziea baita.

**253.** BARRUTI GUZTIETAN, MIKAREN POPULAZIOAREN KONTROLA ALDIAN-ALDIAN EGIN BEHAR DA.

**a)** Egia da, ehiza xeheko beste espezieekin bateraezina da.
**b)** Gezurra da, zerbait egitekotan, populazioa sobera ugaldu dela frogatzen denean egin behar da, eta neurri selektiboak hartuta.
**c)** Egia da, edozein bide da ona horiek kontrolpean edukitzeko.

**254.** NAFARROAN, MIKA EHIZATZEKO SASOIARI BURUZ, BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DA ZUZENA?

**a)** Bakar-bakarrik ehizatu daiteke abuztuaren erdialdetik irailaren erdialdera bitarte.
**b)** Bakar-bakarrik ehizatu daiteke azaroaren hasieratik urtarrilaren bukaerara bitarte.
**c)** Mika ehizatu daiteke ehiza xeheko gainerako edozein espezietarako ezartzen diren ehiza sasoietan.

## BELE TXIKIA

**255.** BELE TXIKIAREN EZAUGARRIAK DIRA:

**a)** Usoen tamaina berdintsukoak dira, gorputzaren kolorea beltza, bereizgarritasun bakarrarekin, garondoa grisa du.
**b)** Belabeltzaren tamaina eta kolore berdintsukoak, baina garondoa grisa du.
**c)** Belearen tamaina eta kolore berdintsukoak, baina garondoa grisa du.

**256.** KORBIDOEN FAMILIAKOA DENEZ, BELE TXIKIAREN DIETA DA OROJALEA ETA ASKOTARIKOA.

**a)** Egia da, eta leku irekietan jaten du, hain zuzen ere bere umatze-kolonietatik hurbil.
**b)** Gezurra da, korbidoen artean bera da landarejale bakarra.
**c)** Gezurra da, bele txikia harrapakaria da eta kaltegarria oso.

**257.** BELE TXIKIAREN PORTAERARI BURUZ, HAUXE BAIEZTATU DEZAKEGU:

**a)** Taldekoia da urte osoan, eta kolonietan izaten du umaldia.
**b)** Taldekoia da bakar-bakarrik migrazio garaian eta negupasetan.
**c)** Gehienetan bakartia da.

**258.** GEURE BELE TXIKIAREN POPULAZIOETAN AURKI DITZAKEGU:

**a)** Hegazti negutarrak, Europako erdialdetik eta iparraldetik heldu direnak.
**b)** Hegazti sedentarioak, eta gainerakoak negutarrak, Europatik etorri direnak.
**c)** Hegazti udatiarrak, negupasa Afrikara joaten direnak.

**259.** NAFARROAN, BELE TXIKIA EHIZATZEKO SASOIARI BURUZ, BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DA ZUZENA?

**a)** Bakar-bakarrik ehizatu daiteke abuztuaren erdialdetik irailaren erdialdera bitarte.
**b)** Bakar-bakarrik ehizatu daiteke azaroaren hasieratik urtarrilaren bukaerara bitarte.
**c)** Bele txikia ehizatu daiteke ehiza xeheko gainerako edozein espezietarako ezartzen diren ehiza sasoietan.

## BELABELTZA

**260.** KORBIDOEN FAMILIAKOAK IZANIK, KOLORE BELTZ UNIFORMEKOAK BADIRA, DEN-DENAK DIRA EHIZATZEKO ESPEZIEAK.

**a)** Egia da, familia horretakoa bada, koloreari erreparatzea aski da ehizatzeko espeziea ote den jakiteko.
**b)** Gezurra da, izan ere ehiza-debekua duten kolore beltzeko espezie gehiago daude (belea, ipar-belea eta belatxinga) ehizatzekoak baino (belabeltza eta bele txikia).
**c)** Egia da, nahiz eta korbidoen artean badiren beltzak ez direnak.

**261.** NOLA BEREIZ DITZAKEGU HAIN ANTZEKOAK DIREN BI ESPEZIE, ALEGIA, BELEA ETA BELABELTZA, JAKINIK, GAINERA, BELEA ESPEZIE BABESTUA DELA?

**a)** Belea handiagoa da, burua handia du eta isatsa kuneiformea.
**b)** Belabeltza handiagoa da, burua handia du eta isatsa kuneiformea.
**c)** Biak berdinak dira eta egiten duten oihu mota da bereizteko modu bakarra.

**262.** BELABELTZEK GOGOKOEN DITUZTEN HABITATAK DIRA:

**a)** Hostozabalen basoak.
**b)** Eremu hezetsuak.
**c)** Laborantzako lurrak, irekiak eta arbolak edo arboladiak han-hemenka dituztenak.

**263.** NAFARROAN, BELABELTZAK IKUS DITZAKEGU:

**a)** Erdialdetik hegoaldera bakarrik.
**b)** Erdialdetik iparraldera bakarrik.
**c)** Lurralde osoan.

**264.** NAFARROAN, BELABELTZA EHIZATZEKO SASOIARI BURUZ, BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DA ZUZENA?

**a)** Bakar-bakarrik ehizatu daiteke abuztuaren erdialdetik irailaren erdialdera bitarte.
**b)** Bakar-bakarrik ehizatu daiteke azaroaren hasieratik urtarrilaren bukaerara bitarte.
**c)** Belabeltza ehizatu daiteke ehiza xeheko gainerako edozein espezietarako ezartzen diren ehiza sasoietan.

## ARABAZOZOAK

**265.** ARABAZOZOAK ETA ZOZOAK BEREIZTEKO, HONAKO HAU HARTU BEHAR DUGU KONTUAN:

**a)** Arabazozoak nabarrak dira, eta zozoak, berriz, beltzak.
**b)** Arabazozoak beltzak dira eta bakarka bizi dira sasi artean.
**c)** Arabazozoek, saldotan, leku irekietan bilatzen dute jana.

**266.** NAFARROAN, NOIZ IKUSTEN DA ARABAZOZORIK GEHIEN?

**a)** Udan, umatu eta gero.
**b)** Neguan, zeren, sedentario bizi direnez gainera, orduan ikusiko baititugu Europako erdialdetik etortzen direnak.
**c)** Urte osoan antzeko kopurua ikusten da, bakarka bizi diren hegaztiak direlako.

## ERBIA

**267.** NAFARROAN, ERBIAREN BI ESPEZIE DAUDE:

**a)** Gezurra da, espezie bakarra dago.
**b)** Egia da, erbi europarra eta piornaleko erbia (erratz-erbia).
**c)** Egia da, erbi europarra eta erbi iberiarra.

**268.** ERBIAREN KUDEAKETA EGOKIA EGIN NAHI BADUGU, INTERESGARRIA IZATEN DA SASOI BAKOITZEKO UGALKETAREN ARRAKASTA NEURTZEA, HARRAPATUTAKO GAZTEEN PROPORTZIOA IKUSIZ. HORI JAKINIK, ERBI BAT HARRAPATZEN DUGUN ALDIRO DATU HORI HONELAXE LOR DEZAKEGU:

**a)** Aurreko hanka ukituz, eskumuturretik gorago, jakin dezakegu konkor txiki bat ote duen kubitoan, horixe baita gazteen seinale.
**b)** Ehizakiaren pisua zehatz-mehatz neurtuta.
**c)** Ebakortzen luzera neurtuz, gazteek dexente laburragoak izaten baitituzte.

**269.** KOPROFAGIA, HAU DA, NORK BERE GOROZKIAK JATEA, EGITEN DU:

**a)** Hausnarkariak, adarzabalak izan ezik.
**b)** Lagomorfoak, erbiak eta untxiak.
**c)** Basurdeak.

**270.** BESTE EHIZTARI BATZUEKIN ARI GARA EZTABAIDAN ERBIAREN UGALTZEKO GAITASUNARI BURUZ; DENA DEN, GUK BADAKIGU:

**a)** Gehienetan 2 - 4 umaldi izaten dituela, bakoitzean 2 - 4 erbikumekoak.
**b)** Gehienetan umaldi bakarra izaten dutela, 4 - 8 erbikumekoa.
**c)** Gehienetan 2 - 4 umaldi izaten dituela, bakoitzean 4 erbikume baino gehiagokoak.

**271.** EHIZTARI BATEK ESAN DIGU ERBIKUME JAIOBERRI BAT AURKITU DUELA URRIAREN HASIERAN:

**a)** Ezinezkoa da, ugaltzeko sasoia abuztuan bukatzen da.
**b)** Izan daiteke, ugaltzeko sasoia urtarriletik azarora bitartekoa izaten baita.
**c)** Ez da egia, erbiaren umaldia neguan izaten da.

**272.** UGALTZEKO SASOIAN, ERBI ARREN PORTAERA IZATEN DA:

**a)** Poligamoak dira.
**b)** Monogamoak dira, baina urtero aldatzen dute bikotekidea.
**c)** Monogamoak dira, eta bikotekidea ez dute bizi osoan aldatzen.

**273.** ERBIEN SUPERFETAZIOAZ ARI BAGARA, ZERTAZ ARI GARA?

**a)** Umaldi bat baino gehiago izateko gaitasuna.
**b)** Bi umaldi batera izateko gaitasuna, garapen fase desberdinetan.
**c)** Umaldi berean 10 erbikume baino gehiago izateko gaitasuna.

**274.** ERBIAK JASATEN DITUEN GAIXOTASUN OHIKOENAK DIRA:

**a)** Tularemia, pseudotuberkulosia eta coccidiosia.
**b)** Tularemia eta mixomatosia.
**c)** Mixomatosia eta gripea.

**275.** ERBIAK NAFARROAN DUEN GUTXI GORABEHERAKO HEDADURA GEOGRAFIKOA.

**a)** Erbi europarra aurkitzen da erdialdetik iparraldera eta erbi iberiarra erdialdetik hegoaldera.
**b)** Bi espezieak Nafarroa osoan daude hedatuak.
**c)** Erbi espezie bakarra dago, lurralde osoan zehar hedatua.

**276.** NAFARROAN NOIZ DA ERBIA EHIZATZEKO SASOIA?

**a)** Otsailaren hasieratik irailaren bukaerara bitarte. **b)** Abuztuaren erdialdetik irailaren erdialdera bitarte. **c)** Azaroaren hasieratik urtarrilaren bukaerara bitarte.

## UNTXIA

**277.** ARGI DITZAGUN UNTXIAREN ETA ERBIAREN ARTEKO DESBERDINTASUNAK.

**a)** Untxiaren gorpuzkera handiagoa da, hankak luzeagoak ditu, gorputza mardulagoa eta belarrien muturretan ez du marka beltzik.
**b)** Untxiaren gorpuzkera txikiagoa da, hankak laburragoak ditu, gorputza ez da hain lerdena eta belarrien muturretan marka beltzak ditu.
**c)** Untxiaren gorpuzkera txikiagoa da, hankak laburragoak ditu, gorputza ez da hain lerdena eta belarriak nabariak, baina txikiagoak eta muturretan ez du marka beltzik.

**278.** UNTXIAREN UMATZEKO GARAIA IZATEN DA:

**a)** Urtarriletik azarora bitarte, eta halako goraldia udan.
**b)** Urte osoan, udan izan ezik, eta goraldia urtarriletik maiatzera bitarte.
**c)** Udaberrian eta udan, eta goraldia maiatzean.

**279.** LAGUN BAT BEHIN ETA BERRIZ ARI DA ESAKA UNTXIAK 6 UMALDI ERE IZATEN AHAL DITUELA URTEAN:

**a)** Ez luke astirik izanen, umaldia hiru hilabetekoa izaten duelako.
**b)** Izan daiteke, eta umaldi bakoitzean batez beste 2 - 4 untxikume izaten ditu.
**c)** Izan daiteke, eta umaldi bakoitzean batez beste 4 - 6 untxikume izaten ditu.

**280.** UNTXI EMEAK NOIZ IZATEN DIRA UMATZEKO GAI?

**a)** 6 - 8 hilabete dituztenean.
**b)** 10 - 12 hilabete dituztenean.
**c)** Urte bat bete eta gero.

**281.** UNTXIEN PORTAERA SOZIALA DA:

**a)** Bakartia eta lurraldekoia.
**b)** Taldekoia eta hierarkizatua.
**c)** Bakartia udan eta taldekoia neguan.

**282.** KOLONIAK AUKERATZEKO GARAIAN, UNTXIAK NAHIAGO DITU:

**a)** Toki hezeak eta oso freskoak.
**b)** Lur lehorreko tokiak, hatzaparka zuloak egiteko.
**c)** Baso usuak, hegazti harrapariengandik babesteko.

**283.** UNTXIEN GAIXOTASUN OHIKOENAK DIRA:

**a)** Mixomatosia eta birusak eragindako pneumonia hemorragikoa.
**b)** Tularemia eta mixomatosia.
**c)** Mixomatosia eta amorrua.

**284.** NAFARROAN NON AURKI DAITEZKE UNTXIEN DENTSITATE HANDIENAK?

**a)** Kantauriko isurialdean.
**b)** Iruñerrian.
**c)** Erdialdean eta Erriberan.

**285.** NAFARROAN NOIZ DA UNTXIA EHIZATZEKO SASOIA?

**a)** Otsailaren hasieratik martxoaren bukaerara bitarte.
**b)** Apiriletik uztailera bitarte.
**c)** Azaroaren hasieratik urtarrilaren bukaerara bitarte.

**286.** NAFARROAN, UNTXIA EHIZATZEKO SASOIARI BURUZ, BAIEZTAPEN HAUETATIK ZEIN DA ZUZENA?

**a)** Ez da sekula zilegi izaten azaroa baino lehen ehizatzea.
**b)** Bereziki sobera ugaldu den tokietan eta kalteak sortu baditu, baimena eman daiteke ehizatzeko abuztuaren hasieratik urriaren erdialdera bitarte.
**c)** Espezie honen ehiza sasoia izaten da lehenbizikoetakoa, apiriletik uztailera bitartekoa izaten baita.

## AZERIA

**287.** AZERIAK JATEN DUENARI BURUZ, ESAN DAITEKE BERE DIETA BATEZ ERE DELA:

**a)** Haragijalea, eta beti landareetatik heldu diren jakiak baztertuta.
**b)** Orojalea eta oso oportunista, betiere dauden baliabideen arabera.
**c)** Landarejalea, eta horregatik da salbuespen bakarra kanidoen artean.

**288.** SUMATU NAHI BADUGU AZERI BAT ARRESKE, GAUEAN ZAUNKAKA, MENDIRA JOAN BEHARKO GENUKE:

**a)** Neguan.
**b)** Udaberrian.
**c)** Udazkenean.

**289.** AZERIKUMEAK JAIOTZEN DIRA ONDOKO HILABETE HAUETAN:

**a)** Urtarriletik martxora.
**b)** Otsailetik apirilera.
**c)** Martxotik maiatzera.

**290.** AZERIAREN UGALKETARI BURUZ ESAN DEZAKEGU:

**a)** Emeak izaten dituela bi umaldi urtean, eta haietako bakoitzean 2 - 5 azerikume jaiotzen dira; horregatik da hain espezie ugalkorra eta kaltegarria.
**b)** Emeak urtean umaldi bakarra izaten du, eta 2 - 5 azerikume jaiotzen dira.
**c)** Emeak urtean umaldi bakarra izaten du, eta 5 - 10 azerikume jaiotzen dira.

**291.** AZERIAREN PORTAERA SOZIALARI BURUZ, ESAN DEZAKEGU ANIMALIA HAU DELA:

**a)** Bakartia eta harat-honat dabilena.
**b)** Bakartia eta lurraldekoia, lurralde bakoitzean bizi direnen arteko oso harreman sozial konplexuarekin.
**c)** Oso taldekoia, otsoaren gisakoa.

**292.** AZERIAREN HEDAPENA ARRAKASTATSUA IZAN DA:

**a)** Animaliak harrapatzeko espezializazio handia duelako.
**b)** Unean-unean eskura duen jaki motaren arabera berehala egokitzen delako.
**c)** Behar energetiko txikiak dituelako.

**293.** AZERIAREN POPULAZIOAK HAINBAT GAIXOTASUNEK JOTA EGON DAITEZKE, ADIBIDEZ:

**a)** Hazteria.
**b)** Mixomatosia.
**c)** Keratokonjuntibitisa.

**294.** NAFARROAN AZERIA IKUS DAITEKE:

**a)** Erdialdetik iparraldera dauden basoetan.
**b)** Erdialdetik hegoaldera dauden basoetan.
**c)** Lurralde osoan.

**295.** NAFARROAN NOIZ DA AZERIA EHIZATZEKO SASOIA?

**a)** Arku bidezko ehizan, apiriletik uztailera bitarte.
**b)** Uxaldi ehizan, abuztu osoan.
**c)** Uxaldi ehizan, irailaren hasieratik otsailaren bukaerara bitarte.

## BASURDEA

**296.** NAFARROAN, BASURDEAK NOIZ JARTZEN DIRA INAUS (ARRESKE):

**a)** Azarotik otsailera.
**b)** Otsailetik maiatzera.
**c)** Abuztutik azarora.

**297.** ORO HAR, NAFARROAKO BASURDEEN POPULAZIOARI AZKENEKO HAMARKADETAN GERTATU ZAIE:

**a)** Arras murriztu direla.
**b)** Arras ugaldu direla.
**c)** Lehenago bezala mantentzen direla.

**298.** BASURDEEN ZORROZTAGINAK (“AMOLADERAS”) HITZA ENTZUTEN BADUGU, ZERTAZ ARI GARA?

**a)** Goiko ebakortzak.
**b)** Goiko letaginak.
**c)** Beheko letaginak.

**299.** UXALDIKO ADISKIDE BATEK ESAN DIGU BASURDE EME BAT IKUSI DUELA, BASURDEKUME MARRADUNEK ATZETIK SEGITZEN ZIOTELA.

**a)** Basurde emea da eta basurdekumeak seguru aski 6 hilabetetik beherakoak.
**b)** Basurde emea da eta basurdekumeak seguru aski 6 - 12 hilabetekoak, gutxi gorabehera.
**c)** Basurde emea da atzetik segika dituela aurreko urteko basurdekumeak (urtebetetik gorakoak).

**300.** EHIZTARI BATEK ESAN DIGU IKUSI DUELA BASURDE BAT HARATUSTELA JATEN.

**a)** Izan daiteke, dieta orojalea du, oportunista da eta denetatik jaten du.
**b)** Izan daiteke, bere dietaren funtsezko osagarri da eta.
**c)** Gezurra da, landarejalea da erabat.

**301.** BASURDEAREN PORTAERA IZATEN DA:

**a)** Bakartia eta lurraldekoia.
**b)** Taldekoia eta lurraldekoia.
**c)** Taldekoia, baina harat-honat askorekin.

**302.** DENOK DAKIGUN BEZALA, BASURDEAK IBILTZEN DIRA BATEZ ERE:

**a)** Egunez.
**b)** Gauez eta ilunabarrean.
**c)** Ilunabarrean.

**303.** NAFARROAN HARRAPATZEN DIREN BASURDEEI BURUZ ARI GARELA, ESAN DEZAKEGU:

**a)** Zenbait sasoitan 5.000 basurde baino gehiago ehizatu direla.
**b)** Oso gutxitan ehizatu direla 500 basurde baino gehiago.
**c)** Normalean, 500 basurde baino gutxiago ehizatzen direla.

**304.** NAFARROAN, BASURDEA IKUS DAITEKE:

**a)** Bakar-bakarrik, Nafarroaren erdialdetik iparraldera dauden basoetan.
**b)** Bakar-bakarrik, Nafarroaren erdialdetik hegoaldera dauden basoetan.
**c)** Foru Komunitateko baso guztietan.

**305.** BASURDEAK ZEIN LUR MOTATAN SORTZEN DITU KALTERIK HANDIENAK?

**a)** Patata, artoa eta bestelako zerealak dituzten lurretan.
**b)** Arroza eta mahastiak dituzten lurretan.
**c)** Fruta-arbolak eta baratzeko produktuak dituzten Erriberako lurretan.

**306.** NAFARROAN NOIZ DA BASURDEA UXALDIETAN EHIZATZEKO SASOIA?

**a)** Otsailaren bukaeratik irailaren hasierara bitarte.
**b)** Abuztuaren erdialdetik irailaren hasierara bitarte.
**c)** Irailaren hasieratik otsailaren bukaerara bitarte.

## OREINA

**307.** OREINAREN ARRESKEALDIA, "MARRUALDIA" DEITZEN ZAIONA, ZEIN HILABETETAN IZATEN DA?

**a)** Maiatzean eta ekainean.
**b)** Irailean eta urrian.
**c)** Urrian eta azaroan.

**308.** ORKATZAK ETA OREINAK BEHAR BEZALA BEREIZTEKO, BEGIRATU BEHAR DUGUNA DA:

**a)** Tamaina, arrek adarretan duten punta kopurua eta ipurtaldeko ezkutua.
**b)** Ilajearen kolorea eta hortz-formula, zeren eta tamainaz berdintsuak baitira biak.
**c)** Habitata, izan ere sekula ez dira biak habitat berean egoten.

**309.** NAFARROAN EGUN DAGOEN OREINEN POPULAZIOA HELDU DA:

**a)** Denbora bateko populazioaren eta hedapenaren pixkanakako murrizketaren ondorioz.
**b)** Desagertutako espeziea lehengoratzeko egin zen birpopulazio batetik.
**c)** Espeziearen hedapen naturaletik.

**310.** OREINEN ADARREN HAZTEARI BURUZ, BAIEZTAPEN HAUETATIK ZUZENA DA.

**a)** Bizitzan zehar hazi eta hazi egiten dira, eta urte bakoitzeko punta bat ateratzen du.
**b)** Urtero berritzen ditu adarrak eta ez dago adinaren eta adar punten kopuruaren arteko zuzeneko erlaziorik.
**c)** Bizitza osoan zehar mantentzen ditu adarrak beren horretan, baina bada erlazioa adinaren eta punten kopuruaren artean.

**311.** OREIN BAT IKUSI BERRI DUGU, ARRA ETA ADARRIK GABEA.

**a)** Adarberritze (“desmogue”) garaian gaude, seguru aski martxoan edo apirilean.
**b)** Adarberritze (“desmogue”) garaian gaude, seguru aski abenduan edo urtarrilean.
**c)** Ezinezkoa da, seguru aski emea izanen da.

**312.** “MARRUALDIAN” GERTATZEN DIREN ARREN ARTEKO OHIKO BORROKALDIAK IZATEN DIRA:

**a)** Lurraldearengatik.
**b)** Janleku hoberenak hartzeagatik.
**c)** Emeengatik.

**313.** LAGUN BATEK ESAN DIGU IKUSI DITUELA OREIN ARRAK TALDEKA.

**a)** Gezurra da, taldekoiak dira bakarrik emeak eta kumeak.
**b)** Izan daiteke, urtearen sasoi luzeetan sexu bakarreko taldeak osatzen dituzte.
**c)** Ez da normala, ar bakoitzak bere lurraldea defendatzen du urte osoan.

**314.** “ESCODADURA” HITZA ENTZUTEN BADUGU, HITZ EGITEN ARI DIRA:

**a)** Oreinek, adarrak erabiliz, arbolen azaletan egiten dituzten urradurak.
**b)** Oreinek beren adarren oinetan izaten dituzten guruin edo glandula jariatzaileak.
**c)** Sasoi bakoitzeko ”desmogue” edo adarberritzea pasatuta, lurrean agertzen diren adarrak.

**315.** HABITATEN GOGOKOTASUNARI BURUZ, NAFARROAN OREINAK NAHIAGO IZATEN DU:

**a)** Zuhaitzen baso mota pila, baita zuhaixkenak ere, adibidez, tamaina handiko ainarrak (txilarrak).
**b)** Erribera aldeko alepo pinuen pinudiak eta sastraka mediterraniarrak.
**c)** Zereal alor zabalak, betiere bertan ur bazterrak badira.

**316.** NAFARROAN NOIZ DA OREINA UXALDIETAN EHIZATZEKO SASOIA?

**a)** Irailaren erdialdetik urriaren erdialdera bitarte.
**b)** Urriaren erdialdetik urtarrilaren bukaerara bitarte.
**c)** Urtarrilaren bukaeratik otsailaren bukaerara bitarte.

## ADARZABALA

**317**. BATEN BATEK ESAN DU HASIA DELA ORROKA ("RONCA") HASTEKO ALDIA. HORREK ESAN NAHI DU HASIA DELA ARRESKEALDIA:

**a)** Orkatzarena.
**b)** Oreinarena.
**c)** Adarzabalarena.

**318.** TAMAINARI BURUZ, ADARZABALA DA:

**a)** Oreinaren tamainakoa.
**b)** Orkatzaren tamainakoa.
**c)** Orkatza baino handiagoa baina oreina baina txikiagoa.

**319.** KANPOAN GAUDE ETA ARI GARA ENTZUTEN ADARZABALAREN ORROKA ("RONCA") HASTEKO GARAIA:

**a)** Maiatza edo ekaina behar du izan.
**b)** Abuztua edo iraila behar du izan.
**c)** Urria edo azaroa behar du izan.

**320.** ADARZABALEN UDAKO ILAJEA DA:

**a)** Oreinarena bezalakoa.
**b)** Nabar-gorrixka, pikor zuriekin eta marra zurixka albo banatan.
**c)** Tigrearen antzerakoa eta burukoa oso iluna.

**321.** NAFARROAN NON IKUS DITZAKEGU ADARZABALAK?

**a)** Nafarroako erdialdeko hostozabalen basoetan.
**b)** Bakar-bakarrik Kinto inguruan.
**c)** Erribera aldeko sastrakadi eta baso mediterraniarretan.

**322.** NAFARROAN NOIZ DA ADARZABALA EHIZATZEKO SASOIA?

**a)** Irailaren erdialdetik urriaren erdialdera bitarte.
**b)** Urriaren erdialdetik urtarrilaren bukaerara bitarte.
**c)** Urtarrilaren bukaeratik otsailaren bukaerara bitarte.

## ORKATZA

**323.** AZKENEKO HAMARKADETAN ORKATZAK IZAN DUEN POPULAZIO JOERA IZAN DA:

**a)** Arras ugaldu da.
**b)** Arras murriztu da.
**c)** Ez ugaldu eta ez murriztu, berdintsu jarraitzen du.

**324.** BASOAN ZEHAR PASEOAN GOAZELA, HALAKO BATEAN ZERBIDO BAT IRUDITU ZAIGU, HORI BAI, ZURIA ZUEN IPURTALDEKO EZKUTUA.

**a)** Oreina edo orkatza izan daiteke.
**b)** Orkatza da.
**c)** Oreina da.

**325.** EHIZA SASOI OROKORREAN (URRITIK URTARRILERA) OSO ONGI BEREIZTEN AHAL DITUGU ORKATZ ARRAK BEREN ADARRENGATIK.

**a)** Bai, zeren eta emeek ez baitute adarrik eta arrek bai.
**b)** Ez beti, zeren eta sasoi horretan izaten baitute gehienetan adar galtzea (“desmogue”) eta adarberritzea.
**c)** Bai, zeren eta sasoi honetan ez baita “desmogue” delakoa gertatzen; hori maiatzean gertatzen zaie.

**326.** EHIZTARI BATEK ESAN DIGU ORKATZ BAT IKUSI DUELA “BORRA"REKIN.

**a)** Hori da adarra biltzen duen tertziopelozko azala, hura hazten ari denean.
**b)** Hori da larruazaleko gaixotasun bat, hazteriaren antzekoa.
**c)** Hori esaten da kume bat lagun duela dabilenean.

**327.** ORKATZAREN JAKIEN DIETAN SARTZEN DA:

**a)** Belarra batez ere, animalia hau belarjalea delako.
**b)** Belar mota pila, eta zuhaitzen edo zuhaixken muskilak, hostoak eta fruituak.
**c)** Landareetatik heldu diren jakiak, eta horiek osatzeko harrak eta barraskiloak udaberrian.

**328.** LAGUN BAT TEMATU DA ETA BEHIN ETA BERRIZ AIPATU DU UDABERRI HONETAN IKUSTEN ARI DELA BELARDI BATEAN ORKATZ BIKOTE BAT.

**a)** Ez da normala, hain zuzen ere orkatzak lurralde zabalak bisitatzen dituelako harat-honat, atsedenik gabe.
**b)** Ez da normala; udaberria da eta orkatzak ez dira bikoteka ibiltzen sasoi horretan.
**c)** Izan daiteke, orkatza animalia sedentarioa delako eta oso lurraldekoia urte sasoi horretan.

**329.** ORKATZAK BERE JARDUN GEHIENAK EGITEN DITU:

**a)** Egunaren erdiko orduetan.
**b)** Ilunabarreko orduetan.
**c)** Gaueko orduetan.

**330.** ORKATZEK NAFARROAN HAUTATZEN DITUZTEN HABITATAK DIRA:

**a)** Baso eremuak.
**b)** Laborantzako lurrak eta eremu irekiak.
**c)** Mendi garaietako belardiak.

**331.** LANTOKIKO LAGUN EHIZTARI BAT BEHIN ETA BERRIZ ARI DA ESAKA BASURDEEK BAI BAINA ORKATZEK EZ DUTELA KALTERIK SORTZEN.

**a)** Egia da.
**b)** Batzuetan bai eta besteetan ez, dentsitatea handia denean kalteak sor ditzakete, batez ere basoberritzeetan.
**c)** Gezurra da, nekazaritzako produktuak jaten dituzte gehienetan.

**332.** NAFARROAN NOIZ DA ORKATZA UXALDIETAN EHIZATZEKO SASOIA?

**a)** Apiriletik abuztura bitarte.
**b)** Irailetik abendura bitarte.
**c)** Urtarrilean eta otsailean.

**333.** ORKATZ ARREK LURRALDE-MARKAK EGITEN DITUZTE, ETA HORIEK IZATEN DIRA:

**a)** Usaimenaren bidezko seinaleak (pixa eta gorozkiak).
**b)** Usaimenaren bidezko seinaleak eta hazka-markak, tamaina txikiko zuhaixketan.
**c)** Hazka-markak, bere lurraldean dauden zuhaitz handi eta nabarmenetan.

# 5
# Ekosistemak eta basafauna

**334.** EKOSISTEMAZ ARI GARENEAN, ARI GARA:

**a)** Izaki bizidunen komunitateen multzoaz.
**b)** Izaki bizigabeen (klima, lurzorua, erliebea,...) elementuen multzoaz.
**c)** Izaki bizidunen komunitateen eta bizigabeen (klima, lurzorua, erliebea,...) elementuen multzoaz.

**335.** GAUR EGUN, EHIZATU DAITEZKEEN ESPEZIEEN KOPURUA DA:

**a)** Ehiza debekua duten espezie babestuenaren antzekoa.
**b)** Ehiza debekua duten espezie babestuena baino dexente handiagoa.
**c)** Ehiza debekua duten espezie babestuena baino dexente txikiagoa.

**336.** NAFARROAN DAGOEN FAUNA DIBERTSITATEA OSO HANDIA DA, BAI NAZIO MAILAN BAI EUROPA MAILAN. HORREN ARRAZOI NAGUSIENETAKOA DA:

**a)** Espezie askorekin egin diren birpopulaketak eta askatzeak.
**b)** Kokapen geografikoa, Kantauri itsasoaren, Pirinioen eta Ebroko ibar lehorraren eragina baitu.
**c)** Harrapakari gutxi izatea, horregatik baitago hainbeste espezie biziraupen oso handia dutenak.

**337**. NAFARROAKO ERDIALDEKO ESKUALDEKO KLIMAZ ARI BAGARA, ESAN DEZAKEGU:

**a)** Batez ere Atlantikoaren eragina duela.
**b)** Batez ere Mediterraneoaren eragina duela.
**c)** Transiziokoa dela, klima atlantiarraren eta mediterraniarraren artekoa.

**338.** ESPEZIE BATEN BIZIRAUPENA OSO TXIKIA DENEAN, ETA HORREN ARRAZOI IZAN DIREN FAKTOREEK BEREN HORRETAN JARRAITZEN BADUTE, EMATEN ZAION KATEGORIA DA:

**a)** “Galtzeko zorian”.
**b)** “Interes berezikoa”.
**c)** “Habitataren aldaketarekiko sentibera”.

**339.** MIRU GORRIA ESPEZIE ARRUNTA DA NAFARROAN...

**a)** Eta oso ugaria Europa osoan, nahiz eta haratustelez elikatzen den eta ez duen kalterik eragiten.
**b)** Baina, oro har, murrizten ari da egunetik egunera eta horregatik "galtzeko zorian" kategorian sartu da.
**c)** Eta kalte handia egiten dio ehizari; horregatik, kontrolatu beharko litzateke espezie honetako hegaztien kopurua.

**340.** NAFARROAN, GAUR EGUN, ONDOKO ESPEZIEEN ARTEAN ZEIN DA MEHATXATUENA?

**a)** Bonelli arranoa.
**b)** Arrano beltza.
**c)** Arrano sugezalea.

**341.** NAFARROAKO LARRE ALPETARRETAN DAGOEN MARMOTAREN JATORRIARI BURUZ, ESAN DEZAKEGU:

**a)** Alpeetatik honat eginiko hedapen natural baten ondorioa dela.
**b)** Frantziako Erdialdeko Pirinioetan egindako askatze baten ondorioa dela.
**c)** Nafarroako Pirinioetako espezie autoktonoa dela.

**342.** NAFARROAN, MENDI-PINUEN EDO PINU BELTZEN PINUDIAK DAUDE:

**a)** Erriberan.
**b)** Ibar atlantiarretan.
**c)** Pirinioetako goi eremuetan.

343. LAGUN BATEK AZALDU DIGU HARTZ ARREA DELA BAKAR-BAKARRIK GOI MENDIETAKO ESPEZIEA, BASO HELDUAK AUKERATZEN DITUENA, BETIERE 1.400 METROTIK GOITI.

**a)** Egia da, salbu eta halako negu gorri bortitzetan.
**b)** Gezurra da, antzinako denboretan baso mota guztietan ikus zitekeen Nafarroan.
**c)** Egia da, altuera horretatik behera ez da sekula hartzik izan.

**344.** IBERIAR PENINTSULAN, HARTZ ARREA DESAGERTZEKO ESPEZIE MEHATXATUA DA, ETA HAIEN KOPURUA EZ DA EHUNDIK GORAKOA:

**a)** Eta hedatuak daude batez ere Kantauriar Mendilerroan, eta gutxiago Pirinioetan.
**b)** Bakar-bakarrik hedatuak Kantauriar Mendilerroan.
**c)** Bakar-bakarrik hedatuak daude Pirinioetan.

**345.** SARRIOA ZEIN ESPEZIEREKIN DAGO AHAIDETUAGO?

**a)** Zerbidoekin.
**b)** Marmotekin.
**c)** Ahuntzekin.

**346.** SARRIOAREN ADARREI BURUZ GALDETZEN BADIGUTE, ESAN BEHAR DUGU:

**a)** Urtero erortzen zaizkiela eta bai arrek bai emeek badituztela.
**b)** Ez zaizkiela erortzen eta bai arrek bai emeek badituztela.
**c)** Ez zaizkiela erortzen eta arrek bakarrik dituztela.

**347.** EHIZTARI BATEK ESAN DIGU SARRIOA DELA ESPEZIE BAT KANTAURIAR MENDILERROKO REBEKOEN AHAIDEA ETA GAUR EGUN BAKAR-BAKARRIK NAFARROAKO HAINBAT TOKITAN BIZI DELA, ETA HORIETAN ZILEGI DELA UXALDI MODUAN EHIZATZEA.

**a)** Ezinezkoa da, Nafarroan gaur egun espezie babestua da sarrioa.
**b)** Egia da, eta Iberiar Penintsula osoan Nafarroan bakarrik aurki daiteke.
**c)** Egia da bakar-bakarrik Nafarroako Pirinioetan bizi dela baina bakar-ehiza larrian (“rececho”) modalitatean ehizatzen da.

**348.** GOI MENDIETAKO HEGAZTIEN ARTEAN GARRANTZITSUENAK DIRA:

**a)** Basoilarra, elur-eperra eta eper grisa.
**b)** Basoilarra, basoiloa eta eper grisa.
**c)** Basoiloa, elur-eperrra eta ugatza.

**349.** BASOILARRA ESPEZIE MEHATXATUA DA, NAFARROAKO PIRINIOETAKO HAINBAT LURRALDETAN BIZI DENA ETA GOGOKOEN DUEN HABITATA DA:

**a)** Larre alpetarrak eta sastrakadiak, soilguneak dituztenak.
**b)** Goi mendietako basoak.
**c)** Goi mendietako harkaitzak.

**350.** ELUR-EPERRA ESPEZIE MEHATXATUA DA, ORAINDIK NAFARROAKO PIRINIOETAN BIZI DENA ETA GOGOKOEN DUEN HABITATA DA:

**a)** Larre alpetarrak.
**b)** Goi mendietako basoak.
**c)** Goi mendietako harkaitzak.

**351.** EPER GRISA ESPEZIE MEHATXATUA DA, NAFARROAKO PIRINIOETAKO HAINBAT LURRALDETAN BIZI DENA ETA GOGOKOEN DUEN HABITATA DA:

**a)** Goi mendietako larreak eta sastrakadiak, soilguneak dituztenak.
**b)** Goi mendietako basoak.
**c)** Goi mendietako harkaitzak.

**352.** EGIA OTE DA NAFARROAKO BASOEN ARTEAN PAGADIEK HARTZEN DUTELA AZALERARIK HANDIENA?

**a)** Bai, Foru Komunitateko lurraldearen %10 hartzen dute, gutxi gorabehera.
**b)** Egia da Nafarroan gehien irudikatzen den basoa dela, baina normala da, izan ere Nafarroatik kanpo ez da pagorik ikusten.
**c)** Ez, Nafarroan gehien irudikatzen den basoa da sastrakadi mediterraniarra.

**353.** HARIZTI ATLANTIARRETAKO ZUHAITZIK OHIKOENAK DIRA:

**a)** Erkametzak.
**b)** Ametzak.
**c)** Haritz kandudunak.

**354.** HARITZ KANDUDUNEN BASOEN HEDAPENARI BURUZ, UNADA GARRANTZITSUENAK DAUDE:

**a)** Nafarroako iparraldean eta erdialdean.
**b)** Pirinio aldean.
**c)** Nafarroako erdialdean eta hegoaldean.

**355.** PAGADIAREN ONDOTIK, NAFARROAN LUR GEHIEN HARTZEN DUEN BASOA DA:

**a)** Artadia.
**b)** Haritz kandudunaren hariztia.
**c)** Ler gorriaren pinudia.

**356.** IBAR ATLANTIARRETAKO EHIZTARI BATEK ESAN DIGU OILAGORRA IKUSI DUELA BELARDI BATEAN ETA ARRATSEAN, EGIA OTE DA?

**a)** Ez, oilagorrak bakar-bakarrik baso nafarretan bizi dira.
**b)** Bai, izan ere oilagorrek bakar-bakarrik egiten dute habia belardi atlantiar nafarretan.
**c)** Bai, oilagorrak maiz joaten dira belardi mota horietara, zizare bila.

**357**. NAFARROAKO BASOETAKO ZUHAITZETAN IZATEN DIREN INTSEKTU BIZKARROIAK KONTROLATZEKO HEGAZTI ONENEN ARTEAN, GARRANTZITSUENAK DIRA:

**a)** Okilak eta paridoak (kaskabeltzak, amilotxak,...).
**b)** Basoetako hegazti harrapariak.
**c)** Horretarako ez dago hegazti bakar bat ere on egiten duenik.

**358.** HEGAZTI HARRAPARIEK ZEREGIN EKOLOGIKO HANDIA DUTE SENDOENEN ALDEKO HAUTAKETA NATURALEAN LAGUNTZEKO ETA GAIXOTASUNEN HEDAPENA GALARAZTEKO.

**a)** Egia.
**b)** Egia, baina ehizatzeko hainbat espezieren desagerpena ere ekar dezakete.
**c)** Gezurra, besterik gabe gogokoen duten harrapakaria falta denean beste bat aukeratzen dute erasotzeko.

**359.** GAUEKO HEGAZTI HARRAPARIEK JATEN DUTENAREN ARTEAN, HONAKO HAUEK NABARMENTZEN DIRA:

**a)** Marraskariak.
**b)** Hegaztiak.
**c)** Haragijale txikiak.

**360.** ZEIN HEGAZTI HARRAPARI DA BEREZIKI ERAGINKORRA KORBIDOEN (BELABELTZAK ETA MIKAK, BESTEAK BESTE) POPULAZIOAK KONTROLATZEKO?

**a)** Belatza.
**b)** Aztorea.
**c)** Zapelatza edo busardoa.

**361.** ERKAMETZEN BASO EDERRAK AURKITU NAHI IZANEZ GERO, JOANEN GARA:

**a)** Erriberara.
**b)** Nafarroako Erdialdera.
**c)** Ibar atlantiarretara.

**362.** ZEIN ESPEZIE DAGO EGOKITUAGO KLIMA MEDITERRANIARRERA, KARRASKA EDO PAGOA?

**a)** Karraska, nahiz eta hori ere aurki daitekeen ibar atlantiarretan.
**b)** Pagoa, udan euri gehiago behar duelako.
**c)** Karraska, eta haren hedapena ez da Iruñerritik gora igotzen.

**363.** ADISKIDE EHIZTARI BATEK ESATEN BADIGU IKUSI DUELA EPER BAT ABARITZ BATEN AZPITIK ATERATZEN, ZER LANDARE ESPEZIE DA HORI?

**a)** Leku mediterraniar erdi-lehorretan izan ohi den zuhaixka edo sastraka.
**b)** Hainbat metrotako zuhaitza, ibaiertzetan ikus daitekeena.
**c)** Pirinioetako gailurretan izan ohi den sastraka.

**364.** LEHORTEARI ONGI EUSTEN DIOLAKO, ERRIBERAN ETA BARDEA ALDEAN BASOBERRITZEKO GEHIENETAN ERABILTZEN DEN ESPEZIEA DA:

**a)** Izeia.
**b)** Alepo pinua.
**c)** Ler edo pinu gorria.

**365.** LAGUN BAT BEHIN ETA BERRIZ ESATEN ARI DA GAUR EGUNGO ZEREAL ALORRAK AITZINEKO DENBORETAN BASOEK ESTALTZEN ZITUZTELA.

**a)** Gezurra da, zeren eta bertan izan zitekeen landaredia (landaredi potentziala) produkzio txikiko belardia da.
**b)** Gezurra da, zeren eta zerealak autoktonoak dira eta nekazariak haiek landu besterik ez du egiten, produkzioa hobetzeko.
**c)** Egia da, zeren eta egungo paisaia mendeetan zehar eginiko goldaketen ondorio da, nekazaritza eta abeltzaintza helburu izanik.

**366.** NAFARROAN DAUDEN HARAGIJALE TXIKI ETA ERTAIN GEHIENAK TALDE HONETAKOAK DIRA:

**a)** Kanidoak.
**b)** Felinoak.
**c)** Mustelidoak.

**367.** ESTEPAK DIRA, ERREGE BARDEAN ASKO BAITIRA, OSO EMANKORTASUN GUTXIKO LURRAK ETA BALIO EKOLOGIKO ESKASEKOAK.

**a)** Ez da egia, izan ere bai flora bai fauna oso espezializatua dago, horien artean estepako hegaztiak.
**b)** Ez da egia, izan ere bai flora bai fauna oso espezializatua dago, horien artean harkaitzetako hegazti harrapariak.
**c)** Egia da, eta gainera higadura arazo handiak jasan behar ditu.

**368.** ZENBAIT HARAGIJALEK, LEPAZURIA ETA KATAJINETA KASU, BELABELTZAK ETA MIKAK ERASOTZEN DITUZTE ETA HORREGATIK DIRA ONURAGARRIAK EHIZTARIARENTZAT.

**a)** Egia da, eta horrela ez dute ehizatzeko beste espezieetan kalterik sortzen.
**b)** Ezinezkoa da, haragijale horiek gauez ibiltzen baitira, eta korbidoak, berriz, egunez ibiltzen dira.
**c)** Gezurra da, narrastiak eta anfibioak besterik ez du jaten.

**369.** NAFARROAKO ESTEPETAN DAGOEN HEGAZTI PROPIOA DA:

**a)** Basoiloa.
**b)** Arrano beltza.
**c)** Basoilarra.

**370.** ZERGATIK DEITZEN ZAIO “KORRIDORE EKOLOGIKOA” HALAKO IBAI-TARTEARI, NON BERE HORRETAN MANTENTZEN DEN BERTAKO LANDAREDIA, EREMU ANDEGATUETAN BARNA ETA GIZAKIAREN PRESIO HANDIA DAGOEN TOKITIK IGAROTZEN DENEAN?

**a)** Hain zuzen ere bertan bizi diren espezieak korrika ibiltzen direlako ibaiertzetan.
**b)** Ahalbidetzen duelako populazio zatikatuen arteko fluxua, eta tarte horiek gabe erabat bereiz egonen liratekeelako.
**c)** Hain zuzen ere halako tokietan ehizatzea erabat debekatua dagoelako, eta gutxi batzuk bakarrik igarotzen ahal direlako hortik, betiere oinez eta horretarako baimen berezia izanda.

**371.** IBAI HALTZADUNAK TIPIKOAK DIRA NAFARROAKO ERDIALDETIK IPARRALDERA ETA OHIKO HABITATA DIRA BALIO EKOLOGIKO HANDIA DUTEN BI ESPEZIE MEHATXATURENDAKO, HAIN ZUZEN ERE:

**a)** Igaraba eta lepahoria.
**b)** Bisoi europarra eta lepahoria.
**c)** Igaraba eta bisoi europarra.

**372.** IBAIAK UR-EMARI HANDIKOAK ETA IBILGU ZABALEKOAK DIRENEAN, ETA GORABEHERA GUTXIKO LANDAZELAIETAN BARNA IGAROTZEN DIRENEAN, MAIZ IKUS DAITEZKE:

**a)** Makaldi naturalak eta ibaiertzetako basoak, balio ekologiko handikoak.
**b)** Makal hibridoen basoberritzeak, balio ekologiko handikoak.
**c)** Ibaiertzetako arteak, balio ekologiko handikoak.

**373.** NAFARROAKO HEZEGUNEAK OSO BALIO EKOLOGIKO HANDIKOAK DIRA, ADIBIDEZ:

**a)** Uretako hegaztien atsedenleku direlako.
**b)** Antzara hankagorrizta ugaltzeko.
**c)** Ahate ehizaldiak antolatzeko.

**374.** IBERIAR PENINTSULAN ETA EUROPAN, ZEIN ESPEZIE DAGO MEHATXATUAGO, IGARABA EDO BISOI EUROPARRA?

**a)** Igaraba, izan ere Europan duen hedadura Iberiar penintsulara mugatzen da.
**b)** Bisoi europarra, izan ere Nafarroan eta mugakide diren lurraldeetan aurkitzen da mendebaldeko populazio europar gehientsuena.
**c)** Biak, izan ere berdintsu dabiltza bai hedadura eremuari dagokionez bai kontserbazio mailari dagokionez.

**375.** EHIZA SASOIAN NAFARROAN IKUS DAITEZKEEN AHATE GUZTIEN ARTEAN, BI ESPEZIE BAIZIK EZ DIRA EHIZA DAITEZKEENAK, HONAKOAK:

**a)** Basahatea eta ahate mokozabala.
**b)** Basahatea eta zertzeta arrunta.
**c)** Basahatea eta ipar-ahatea.

**376.** ERRAILIDOAK URETAKO HEGAZTIAK DIRA, BEHATZAK PALMATUTA DITUZTENAK ETA IBAIETAN ETA PUTZUETAN SARRITAN IKUS DAITEZKEENAK, BATEZ ERE ERRIBERAN ETA NAFARROAKO ERDIALDEAN.

**a)** Egia da, eta horien artean ehizatu daitekeen bakarra kopetazuri arrunta da.
**b)** Egia da, eta haien artean ehizatu daitezkeen hiru espezieak dira uroilo arrunta, uroilanda handia eta kopetazuri arrunta.
**c)** Gezurra da, “errailido” hitza erabiltzen da basurdekumeak izendatzeko.

**377.** HANKALUZEEN TALDEAN SARTZEN DIRA URETAKO HEGAZTI FRANKO, TAMAINA HANDI SAMARREKOAK ETA HANKA LUZEKOAK, BAINA HAIEN ARTEAN EZ DA BAKAR BAT ERE EHIZATU DAITEKEENA.

**a)** Gezurra, ahate mokozabala eta espatula ehizatu daitezke Nafarroan.
**b)** Gezurra, koartza hauskara ehizatu daiteke Nafarroan.
**c)** Hankaluze guzti-guztiak erabat babestuak daude.

**378.** ZEIN EKOSISTEMA DIRA “HARKAITZETAKOAK” IZENARI LOTUAK DAUDENAK ETA HEGAZTI HARRAPARI ESPEZIALIZATU BATZUEN BABESLEKU DIRENAK?

**a)** Estai alpetarra eta goi mendietako pinudi propioak.
**b)** Harkadiak, harkaitzak, zintzurrak eta arroilak.
**c)** Mendietako errekatxoak, ibai haltzadunak eta ibai makaldun eta zurzuridunak.

**379.** ENTZUN DUGU HARKAITZETAKO HEGAZTI HARRAPARIEN KONTSERBAZIOAK NAFARROAN BADITUELA BI MEHATXU, BATA POZOIA ETA BESTEA ISILEKO EHIZA:

**a)** Egia.
**b)** Bai eta ez, hori pozoi motaren arabera izaten da; izan ere, batzuk erabil daitezke harrapakariak kontrolatzeko.
**c)** Gezurra, arazoa jantoki artifizialetan da, izan ere animalia hilak uzten dira bertan eta usteltzen direnean sortzen da arazoa.

**380.** HARKAITZAK EKOSISTEMA BEREZIAK DIRA, KALTEBERAK ETA BALIO EKOLOGIKO HANDIKOAK. ESAN EZAZU ONDOKO BAIEZTAPENEN ARTEAN ZEIN DEN OKERRA:

**a)** Harkaitzetako hegaztiak oro har dira garrantzitsuak, horietako hainbat espezie mehatxaturik baitaude, bereziki ugatza eta Bonelli arranoa.
**b)** Batez ere Nafarroan dagoen sai arrearen kolonia, Europako handienetakoa delako.
**c)** Batez ere Nafarroan dagoen sai arrrearen kolonia, Europako hegoaldeen dagoen populazioa delako.

# 6
# Armak eta ehiza zakurrak

## SU-ARMAK

**381.** NAFARROAN PRAKTIKATZEN DIREN EHIZA MODALITATE GEHIENETAN ERABILTZEN DIRA:

**a)** Su-armak eta, gutxiago, ehiza-arkuak.
**b)** Su-armak eta ehizarako arteak eta arkuak.
**c)** Ehizarako arteak, arkuak eta, gutxiago, errifleak.

**382.** SU-ARMA LUZEA, ARIMA LEUNEKOA EDO, PLOMEOA ERRAZTEKO, KANOI MARRADUNA DUENA DA:

**a)** Eskopeta.
**b)** Erriflea.
**c)** Errebolberra.

**383.** SU-ARMA LUZE MARRADUNA, EHIZA LARRIRAKO ERABILTZEN AHAL DENA ETA METALEZKO KARTUTXOENDAKO ERREKAMARA DUENA DA:

**a)** Eskopeta.
**b)** Erriflea.
**c)** Errebolberra.

**384.** ESKOPETAREKIN EHIZATU DAITEKE UXALDIETAN EDO "ATERATZE" MODALITATEETAN?

**a)** Ez, debekatua dagoelako ehiza larriko espeziei perdigoizko kartutxoekin tiro egitea.
**b)** Ez, debekatua dagoelako ehiza larriko espeziei eskopetarekin tiro egitea.
**c)** Bai, zilegi delako ehiza larriko espeziei balazko kartutxoekin tiro egitea.

**385.** ERRIFLEAREKIN TIRO EGITEN AHAL ZAIO EHIZA XEHEKO EHIZAKI BATI?

**a)** Ez, debekatua dagoelako ehiza xeheko espeziei metalezko kartutxoekin tiro egitea.
**b)** Ez, debekatua dagoelako ehiza xeheko espeziei erriflearekin tiro egitea.
**c)** Bai, baina bakar-bakarrik azeriari eta ehiza larriko modalitateetan.

**386.** EHIZA XEHEKO EHIZAKIAK MUGITZEN ARI DIRENEAN, ARMA BAT BEHARKO DUGU HALAKO PERDIGOI-ZABALDURA ATERATZEN DUENA, GUTXIENEZ 3-4 PERDIGOI GELDITZEKO TAMAINA TXIKIKO EHIZAKI BATEN BARRENEAN, ETA HORREGATIK ERABILIKO DUGU:

**a)** Erriflea, balazko kartutxoekin kargatua.
**b)** Erriflea, perdigoizko kartutxoekin kargatua.
**c)** Eskopeta, perdigoizko kartutxoekin kargatua.

**387.** EHIZA LARRIKO EHIZAKIAK BOTA NAHI BADITUGU ETA 50 METROTIK HARATAGO BADAUDE, BEHARREZKOA DA ARMA BAT DISTANTZIA LUZE SAMARRERA BOTATZEKO AHALMENA DUENA ETA PERDIGOIA BAINO ASKOZ ERE HANDIAGOA DEN JAURTIGAI BAKARREKOA, BALA, ALEGIA.

**a)** Horregatik erabiliko dugu erriflea, perdigoizko kartutxoekin kargatua eta arima marraduneko kanoia duena.
**b)** Horregatik erabiliko dugu eskopeta, balazko kartutxoekin kargatua eta arima marraduneko kanoia duena.
**c)** Horregatik erabiliko dugu erriflea, metalezko kartutxoekin kargatua eta arima marraduneko kanoia duena.

**388.** ARMA HAUETATIK ZEIN DA KANOI BAKARREKOA?

**a)** Eskopeta gainjarria.
**b)** Kanoi elkartuko eskopeta.
**c)** Eskopeta erdi-automatikoa.

**389.** ARMA HAUETATIK ZEIN DA EZAGUTZEN DENA "ERREPIKAPENEKOA" IZENAREKIN?

**a)** Errifle erdi-automatikoa.
**b)** Eskopeta erdi-automatikoa.
**c)** Eskopeta paraleloa.

**390.** ZEIN ESKOPETA DA ERREKARGATU GABE 3 TIRO EGITEKO AHALMENA DUENA?

**a)** Eskopeta gainjarria.
**b)** Kanoi elkartuko eskopeta.
**c)** Erdi-automatikoa.

**391.** ESKOPETA ERDI-AUTOMATIKO BATEAN, GEHIENEZ ZENBAT KARTUTXO SARTZEN AHAL DIRA BARRENEAN?

**a)** 2.
**b)** 3.
**c)** 5.

**392.** ARMA HAUETATIK ZEIN DAGO DEBEKATUA EHIZARAKO?

**a)** Errifle automatikoa.
**b)** Errifle erdi-automatikoa.
**c)** Errifle irristailuduna (korrederakoa)

**393.** KISKETAKO ("CERROJO") ERRIFLEARI BURUZ, ZEIN BAIEZTAPEN DA OKERRA?

**a)** Errepikapeneko erriflea da.
**b)** Hiru tiro bota ditzake gehienez, kartutxo bat errekamaran eta 2 kargadorean.
**c)** Ehiztari askok erabiltzen dute.

**394.** ERRIFLE HAUEN ARTEAN, ZEIN DA, ERREKARGATU GABE, 3 TIRO BOTATZEKO AHALMENA DUENA?

**a)** Espresa.
**b)** Erdi-automatikoa.
**c)** Tirobakarrekoa.

**395.** ESKOPETEN KALIBREETAN, ZEIN DA HANDIENA?

**a)** 12koa.
**b)** 16koa.
**c)** 20koa.

**396.** ZENBAKI HAUEN ARTEAN, ZEIN DAGOKIO PERDIGOIRIK HANDIENARI?

**a)** 9 zenbakia.
**b)** 8 zenbakia.
**c)** 7 zenbakia.

**397.** ESKOPETA HAUEN ARTEAN ZEINEK DU PERDIGOI HANDIENA?

**a)** 12ko eskopeta, 7ko perdigoizko kartutxoekin kargatua.
**b)** 16ko eskopeta, 6ko perdigoizko kartutxoekin kargatua.
**c)** 20ko eskopeta, 5eko perdigoizko kartutxoekin kargatua.

**398.** ESAN DIGUTE ZENBAIT HEZEGUNETAN URETAKO HEGAZTIAK HILTZEN ARI DIRELA URTEZ URTE HONDORATUTAKO BERUNEZKO PERDIGOIAK IRENSTEAGATIK, ETA HORREGATIK ARI DIRELA PERDIGOIAK ALDATZEN ETA ORAINGOAK BESTELAKO MATERIALEKIN EGITEN DITUZTELA, HALA NOLA, ALTZAIRUAREKIN.

**a)** Egia da eta gaixotasun horri “plumbismoa” esaten zaio.
**b)** Egia da eta gaixotasun horri “plomeoa” esaten zaio.
**c)** Gezurra da, izan ere berunezko perdigoiak ez dira kaltegarriak behin putzura edo urtegietako hondora erori eta hoztuz gero.

**399.** PERDIGOIZKO KARTUTXOAK TIRATZEN DIRENEAN, NOLA ESATEN ZAIO KANOITIK ATERA ONDOREN PERDIGOIAK ELIPSE BATEN ANTZERA ZABALTZEN DIRENEAN?

**a)** Plumbismoa.
**b)** Plomeoa.
**c)** Txokea.

**400.** ZER DA ESKOPETA BATEN TXOKEA?

**a)** Estugune bat kanoiaren ahoan.
**b)** Tramankulu bat, gasak eskopetatik atera daitezen.
**c)** Tramankulu bat, atzerakako kolpea gutxitzeko.

**401.** ONDOKO TXOKE HAUETATIK ZEINEK ERAGITEN DU ESTUTZE HANDIAGOA KANOIAREN AHOAN?

**a)** (+) Full txokeak.
**b)** (+++) $^{1}{}_{2}$ txokeak.
**c)** (+++++) zilindrikoak.

**402.** NOLA IRUDIKATZEN DA TXOKE ZILINDRIKOKO KANOIA?

**a)** +++.
**b)** ++.
**c)** +++++.

**403.** 32 GRAMOKO KARTUTXO BATEK, NOIZ DITU PERDIGOI GEHIAGO?

**a)** 9ko perdigoiekin kargatua dagoenean.
**b)** 7ko perdigoiekin kargatua dagoenean.
**c)** 5eko perdigoiekin kargatua dagoenean.

**404.** BAIEZTAPEN HAUETATIK ZUZENA DA:

**a)** Eskopetaren balek ibilbide zuzenagoa dute errifleen balek baino.
**b)** Eskopetako balak tiratzen ahal dira kanoi ildokatuekin.
**c)** Eskopetaren balek eta erriflearen balek abiadura bertsua dute.

**405.** EHIZARAKO ERRIFLEEN KALIBREA GEHIENETAN ZEIN LODITASUN TARTEKOA IZATEN DA?

**a)** 2 - 4 mm.
**b)** 6 - 9 mm.
**c)** 12 - 15 mm.

**406.** ARMA ETA MUNIZIOA AUKERATZEKO MOMENTUAN HARTU BEHAR DA KONTUAN:

**a)** Ehizatu nahi dugun espezie mota, besterik ez.
**b)** Ehiza modalitatea, besterik ez.
**c)** Ehizatu nahi dugun espeziea eta ehiza modalitatea.

**407.** ESKOPETEN KALIBREETAN, ZEIN DA ERABILIENA?

**a)** 12koa.
**b)** 16koa.
**c)** 20koa.

**408.** EPERRETAN ETA IBILIZKO TALDE-EHIZAN ("MANO"), ZEIN PERDIGOI MOTAREKIN KARGATU BEHARKO GENUKE ESKOPETA?

**a)** 11 zenbakitik 9ra.
**b)** 8 zenbakitik 6ra.
**c)** 5 zenbakitik 3ra.

**409.** EPERRETAN ETA IBILIZKO TALDE-EHIZAN ("MANO") ARI BAGARA, ONDOKO TXOKE HAUEN ARTEAN, ZEIN IZANGO LITZATEKE EGOKIENA ESKOPETA PARALELOKO KANOIENDAKO?

**a)** ++++ lehenengo tirorako eta ++ bigarrenerako.
**b)** ++ lehenengo tirorako eta ++++ bigarrenerako.
**c)** + bai lehenengo tirorako eta bai bigarrenerako.

**410.** GALEPER EHIZAN ERDI-DEBEKUALDIAN ARI BAGARA, ZEIN PERDIGOI MOTAREKIN KARGATU BEHARKO GENUKE ESKOPETA?

**a)** 11 zenbakitik 9ra.
**b)** 8 zenbakitik 6ra.
**c)** 5 zenbakitik 3ra.

**411.** GALEPER EHIZAN ERDI-DEBEKUALDIAN ARI BAGARA, ONDOKO TXOKE HAUEN ARTEAN ZEIN IZANGO LITZATEKE EGOKIENA ESKOPETA ERDI-AUTOMATIKOAREN KANOIRAKO?

**a)** +++++.
**b)** ++.
**c)** +.

**412.** OILAGORRETAN ETA IBILIZKO BAKAR-EHIZAN ("SALTO") ARI BAGARA, ZEIN PERDIGOI MOTATAKO KARTUTXOEKIN KARGATU BEHARKO GENUKE ESKOPETA?

**a)** 5 zenbakitik 3ra.
**b)** 8 zenbakitik 6ra.
**c)** 10 zenbakitik 8ra.

**413.** OILAGORRETAN IBILIZKO BAKAR-EHIZAN ("SALTO") ARI BAGARA, ONDOKO TXOKE HAUEN ARTEAN ZEIN IZANGO LITZATEKE EGOKIENA ESKOPETA ERDI-AUTOMATIKOAREN KANOIRAKO?

**a)** +++++.
**b)** ++.
**c)** +.

**414.** BASURDE EHIZAKO “ATERATZE”KO POSTU BATEAN GAUDE ZAIN, BALAZKO KARTUTXOAREKIN KARGATUA DAGOEN ESKOPETA BATEKIN. ORDUANTXE IKUSI DUGU AZERI BAT HURBILTZEN ARI DELA.

**a)** Momentu hartan, eta azkar, ateratzen ahal dugu balazko kartutxoa eta sartu 0 zenbakiko perdigoizko kartutxo bat.
**b)** Momentu hartan, eta azkar, ateratzen ahal dugu balazko kartutxoa eta sartu 10 zenbakiko perdigoizko kartutxo bat.
**c)** Ezin dugu balazko kartutxoa atera eta perdigoizko kartutxoa sartu.

**415.** PAGAUSO EHIZAN POSTU FINKO BATETIK ARI BAGARA, ZEIN PERDIGOI MOTATAKO KARTUTXOEKIN KARGATU BEHARKO GENUKE ESKOPETA?

